



Emakume sortzaileak

Kultur hamabostaldia antolatu du Udalak, emakume sortzaileen lana bistaratu eta sustatzeko asmoz



Emakumeen sormenari bultzada

'Emakume Sortzaileak' kultur hamabostaldia antolatu du Udalak, emakumeen sorkuntza lanari ikusgarritasuna emateko

Herriko emakume sortzaileen lana sustatu eta ikusgarritasuna emateko asmoz 'Emakume sortzaileak' kultur hamabostaldia antolatu du udaleko Kultura sailak, Berdintasun departamentuarekin eta Gaztelekuarekin elkarlanean.

Duela bi urteko aurrekontuetan sortu zuen udalak, aurrenekoz, emakume sortzaileen lana bistartzeko berariazko diru-sail bat (10.000€). Orduko hartan, Irazan Antzerki Gunearen baitan sorturiko *Arta Kolektiboaren* proiektu bat —Alaine Agirreren *Bi aldiz erditu zinen nitaz*, Ama eleberrian oinarritutako antzezlanaren sortzea— diruz laguntzea erabaki zuen udalak, eta urtebeteko sortze prozesuaren ostean, iazko martxoan estreinatu zen 'Sehaska kanta gorriari' antzezlanaren Santa Ana antzokian.

Udaleko Kultura saileko buru Iñaki Olalde adierazi zuen emakume sortzaileen lana sustatzeko egitasmo hau geratzeko etorria zela baina urtero era-

bakiko zela nola eta zertara bideratu diru partida hori. Eta, hala, aurten arte diziplina ezberdinei lekua egingo dien kultur hamabostaldia antolatzea erabaki dute.

Ondoko orrian ikus daitekeen moduan, askotariko arte adierazpenak —musika, literatura, antzerkia, bertso-larritza...— eta askotariko artistak —bartzuk profesionalagoak, beste bartzuk amateurak— izango dira protagonista. Tartean, Oñatiko emakume sortzaileen lanekin osatutako erakusketa in-

"Helburua da, herriko emakume sortzaileek ikus dezatela badagoela beraien proiektuak aurrera ateratzeko aukera"

INAKI OLALDE

Kultura batzordeburua

teresgarri bat ere egongo da kultur etxean.

Helburua, azken batean, emakumeak ardatz izango dituzten proiektu artistikoak sustatzea da. "Ikus-entzunezko arteetan edo bestelako arte sorkuntzan diharduten emakumeen lana bultzatzea eta ikusgarritasuna ematea da gure asmoa", adierazi du Olalde; "herriko emakume sortzaileek ikus dezatela badagoela beraien proiektuak aurrera ateratzeko aukera, badagoela sorkuntza lan horiek kontsumitzeko gogoz dagoen publiko bat, eta Udala prest dagoela baliabideak jartzeko". Ilido horretan, kultura batzordeko buruak dei egiten die herritarrei hamabostaldian izango diren ekitaldietan parte hartzera.

Argi utzi behar da, bestalde, Emakume Sortzaileen hamabostaldiak ez daukala loturarik martxoaren 8an ospatzen den Emakumeen Nazioarteko Egunarekin, baina agenda kontuek eragin dute biek denboran bat egitea.

EGITARAUA



MARTXOAK 8 - 22

ERAKUSKETA

'Oñatiko emakume sortzaileak'. Kultur etxean, 18:00-20:00.

MARTXOAK 6

BERTSO MUSIKATUAK

Ane Zuazubiskar, Amaia Iturriotz, Uxue Fernandez eta Oihana Arrana. Gai jartzailea: Maider Arregi. Musikariak: Libe Goenaga eta Aner Peritz. Zine aretoan, 18:00

MARTXOAK 7

IPUIN KONTAKETA
ETA MUSIKA

'Larru Marruak, Primi eta Maurizia'. Ixabel Agirresarobe, Mattin eta Oñatiko musika eskola. Zine aretoan, 18:00.

MARTXOAK 10

ANTZERKIA

'eMcumeak' antzezlan. Santa Ana antzokian, 19:00. Sarrera, 8€.

MARTXOAK 13

IPUIN KONTAKETA

Carolina Rueda kolonbiarraren ipuin kontaketa saioa. Zine aretoan, 18:00.

MARTXOAK 17

KONTZERTUA

BELE.

Gaztelekuan, 12:30. Sarrera, 8€.

Karteleko irudia, Ane Galdosena

Oñatiko emakume sortzaileei eskainitako hamabostaldia karteleko irudiaren diseinuarekin hasi da. Ane Galdos Biain oñatiarrarena da. Diseinatzaile grafikoa da Galdos eta, adibidez, berak egin zuen iazko San Migel jaietako egitarauaren azaleko irudia. 'Oñatiko Emakume sortzaileak' hamabostaldirako prestatu duen karteleko irudian emakumearen burutik jaiotzen diren loreak marraztu ditu, sormena, edertasuna, naturaltasuna edo aniztasuna irudikatzen. Lore ezberdinek sormen diziplina ezberdinei egiten diete erreferentzia, bakoitza bakarra eta berezia, eta udaberriaren etorrerarekin ere lotzen duena. Gainera, irudi abstraktu baten aldeko hautua egin du Galdosek, aniztasuna islatu nahian, emakume sentitzen den oro eta jatorri ezberdinetakoak identifikatuta senti daitezen.

eMcumeak, euskal emakume sortzaileen errealitate gordina agerian uzten duen satira musikala



Itxaso Payak eta Maria Riverok sortutako eMcumeak antzezlan ikusteko aukera izango dugu martxoaren 10ean. Getxoko Juana Bizkarra egonaldi artistikoari esker sortutako lana da eta kulturaren sektorean indarrean dagoen androzentrismoa agerian uztea du helburu, umorea, hitz-jokoak eta askotariko diziplina artistikoak baliatuz. Emakume sortzaileak kontratatze agentzia bat irekitzen duten bi emakume dira protagonistak. Sortzaile berriak aurkitzeko casting bat abiaraziko dute baina, aldi berean, kompetentzia, *Telepitxa*, haien lana oztopatzen ahaleginduko da eta bidean ipiniko dizkien traba eta amarruei aurre egin beharko diete. Olatz Beobide arduratu da zuzendaritza artistikoaz, eta Harkaitz Canok eta Katixa Agirrek ere parte hartu dute sormen prozesuan.

Bele, Lide Hernandoren bakarkako proiektu berria, tradizio afrikar-amerikarra eta musika urbanoa uztartzen dituena



Emakume sortzaileen hamabostaldia borobiltzeko Lide Hernando donostiarraren *Bele* proiektu berria ezagutzeko aukera izango dugu. *Liher* taldeko abeslaria da Hernando, baina bere bakarkako proiektu honetan rock gordinetik aldendu eta bestelako musika generoak lantzen ditu: bluesa, soula, funkya, urbanoa... "Afrikar-amerikar musika beltzaren adarretatik nator ni, eta sus-trai horietara itzultzeko aukera eskaini dit *Bele*-k", adierazi du musikariak. Itzuli bai, baina eguneratuta, egungo musika urbano-ko elementuak ere txertatu baititu bere abesti berrietan. Pandemi garaian erne zitzaion proiektu berria abian jartzeko gogo, baina 2023an eman zion forma. Iazko ekainean plazaratu zuen lehen singlea ('Zerua irabazi') eta orain hasiko da kontzertuak ematen.

Oñatiko hamabi emakume sortzailearen lanak ikusgai egongo dira kultur etxeko erakusketa aretoan

Martxoaren 8tik 22ra Oñatiko emakume sortzailearen lanak egongo dira ikusgai kultur etxeko erakusketa aretoan, egunero, asteleheneretik igandera, 18:00-20:00. Udalak deialdi irekia egin zuen otsailean, eta, azkenik, arte diziplina ezberdinetako hamabi emakumeren artelanekin osatu da erakusketa: **Amaia Cuesta** (pintura akrilikoa), **Ana Arregi** (eskultura), **Anabel Vasquez** (arte tradizionala eta teknologia berriak), **Beatriz Igartua** (mikromakramea eta makramea), **Edurne Iriondo** (Elhuyar anaien aurkikuntza zientifikoari buruzko 'Wolfram' bideoa), **Hortensia Alcalá** (pintura eta berak idatzitako liburuak), **Ines Murguzur** (margolanak), **Leire Lopez** (makramea), **Marina Arregi** (margo akrilikoak), **Miren Zuazola** (pintura eta klown), **Puri Tejerina** (emakume margolanak) eta **Teresa Diaz** (margolan eta marrazkiak). Lide Osinaga ari da erakusketa koordinatzen eta antolatzen, eta zinez interesgarria dator. →

→ **EMAKUME SORTZAILEAK** hamabostaldia

'Larru Marruak. Primi eta Maurizia' liburuaren aurkezpena

Emakume pandero-jole aitzindarien lanari aitortza egin nahi dion liburua da. **Ixabel Agirresarobe** eta **Mattin** ilustratzailea etorriko dira liburua aurkeztera



XX. mendearen hasieran ez zen emakume trikitilaririk ikusten plazetan, eta ateratzen zirenek fama txarra hartzen zuten. Ezkutuan ikasten zuten panderoa edo trikitixa jotzen; etxean, amarekin, normalean. Plazara irten eta gero, emakume publiko bihurtzen ziren, horrek dakarren guztiarekin. Ez zeuden ondo ikusiak. Pertsona publikoa izateko gizonezkoa izan behar zen eta, horregatik, gehienak, senarraren, anaiaren edo aitaren babesean ateratzen ziren plazara.

Hala ere, pixkanaka pixkanaka, Primi Erostarabe (Araotz, Oñati, 1907-1995) eta Maurizia Aldeiturriaga (Zeberio, 1904-1988) bezalako figurei esker emakumeak animatuz joan ziren eta, gaur egun, pandero jole gehienak emakumeak dira.

Eta, hain zuzen, Primi eta Maurizia bezalako landa eremuko emakume aitzindariari aitortza egitea da Ixabel Agirresarobek, Euskal Herriko Trikitixa Elkartearekin lankidetzan, idatzi duen **Larru Marruak**. **Primi eta Maurizia** liburuaren helburua.

Iñaki Martiarena 'Mattin' ilustratzaileak egin ditu libururako marrazkiak, eta bera ere Oñatin izango da, liburu-ko pertsonaiak zuzenean marrazten. Oñatiko musika eskolako pandero-joleek ere parte hartuko dute, beraien



omenalditxoa eskainiz Primi Erostarbe eta orduko emakume ekintzaile guztiei.

Herritar guztiak daude gonbidatuta ordubeta inguru iraungo duen ekitaldira. Martxoaren 7an izango da, kultur etxeko zine aretoan, 18:00etan.



Helduentzako ipuin kontaketa saioa, Carolina Rueda kolonbiarraren eskutik

Udal liburutegiaren eskutik Carolina Rueda kolonbiarraren ipuin kontaketa saioaz gozatzeko aukera izango dugu 'Emakume sortzaileak' hamabostaldiaren baitan, martxoaren 13an, kultur etxeko zine aretoan, 19:00etan.

Literaturan graduatua, kontalari-bidaiari bezala definitzen du bere burua Ruedak, eta 31 urte daramatza ahozko narraziogintza sustatzen eta hitzen bidez emozioak eraikitzen munduan barrena.

'**Gente, caminos y sucesos**' du izenburua Oñatin eskainiko duen saioak. Topaketa, sorkuntza eta abenturari buruzko kontakizun multzoa da. "Toki bakoitza, bertan gertatzen zaizkigun gauzek koloreztatzen dute, eta horrek beti osatzen du, gure bizitzetan, enpatia eta umiltasuna. Literatura eta tradizio-ko istorioekin, ahozko narrazioaren mintzaira intimoaren bitartez, imajinatutako denboraz gozaten saiatuko gara", adierazi du ipuin kontalari kolonbiarrak. Helduei zuzendutako saioa da.

JUANJE MARGOAK
627 818 247

ARKITEKTURA

Baserriak • Teilatua • Fatxadak • Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati • tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



Erdigunetik 2km-tara, kalitate goreneko 6 logela (banakoak edo bikoitzak),
2 suit hidromasaje eta sukaldearekin eta logela laukoitz bat.
Produktu naturalekin prestaturiko afari eta gosari osasungarriak.



Garagaltza, 21 - 20560 Oñati - Gipuzkoa - T.943 783657 / 646 023570
info@casaruralarregi.es ■ www.casaruralarregi.es

22 indarkeria matxista kasu artatu ziren ia Oñatin

Oñatiko indarkeria matxistaren arretarako instituzio arteko koordinazio mahaia emandako datua da. 2022an baino bi kasu gehiago dira, baina aurreko urteetan baino nabarmen gehiago.


2024ko otsailaren 7an bildu zen Oñatiko indarkeria matxistaren arretarako instituzio arteko koordinazio protokoloaren mahaia, eta bertan aurkeztu ziren 2023 urteak indarkeria matxistari dagokionean Oñatin utzi dituen datuak. Udaleko Berdintasun, Gizarte Zerbitzu eta Udaltzaingoak jasotako datuak Ertzaintzak eta osasun zentroak jasotakoekin osatu dira. Datuak aztertu, egogarraren gaineko irakurketa partekatatu eta aurrera begirako erronka eta urratsak finkatu ditu mahaia.

2023KO DATUAK

2023an 22 indarkeria matxista kasu artatu ziren Oñatin; 2022an baino bi gehiago, baina aurreko urteekin alderatuz, nabarmen gehiago, ondoko taulak erakusten duen moduan.

Askotariko emakumeak dira laguntza eske gerturatu direnak, bai adin bai eta bestelako faktore sozio-ekonomikoei dagokienean ere. Emakume gehienek 25-45 urte artekoak dira, nahiz eta adin tarte ezberdinetako emakumeak diren gerturatu direnak. Indarkeria psikologikoa da gehien identifikatzen duten indarkeria mota; ondoren indarkeria fisikoa, eta baita ekonomikoa eta sexuala ere.

Emakume horietako askok seme-alabak ere badituzte eta horiek ere indarkeriaren biktima izaten dira maiz. Kasu honetan ere indarkeria psikologikoa da gehien identifikatzen dena eta, kasu batzuetan, indarkeria fisikoa ere bai.



Laguntza eske gerturatu diren emakume gehienek 25 eta 45 urte artean dituzte

Erasotzaileen erdiak baino gehiago 40 urte baino gutxiago dituzte

Erasotzaileei dagokienean, erdiak baino gehiago 40 urte baino gutxiago dituzte, eta ia kasu guztietan bikotekidea edo bikotekide ohia, eta kasu gehienetan erasotzaileak biktimarekin bizitzen jarraitzen du.

DERIBAZIOA ETA ARRETA

2023 urtean erakundearen artean izandako koordinazioa egoki baloratzen da; deribazioak era egokian egin dira, eta elkarren arteko komunikazio sareak indartsuak dira.

Sarearen garrantzia nabarmendu izan da aurreko urteetan, izan ere protokoloaren sinatzaile diren erakunde guztien ardura da indarkeria egoerak salatzen dituzten emakumeei arreta prozesu integralak eskaintzea, eta unean uneko artatzeaz gain, ahalduz, osatze eta erreparazio prozesuetan laguntzea. Horrek ezinbestean komunikazio eta deribazio sistemak fintzen eta hobetzen joatea ekarri beharko luke.

Bide hori ahalik eta era koordinatuenean egitea da erakundearen erronka, eta bide horretan baliabide falta nabarmendu zen; Ertzaintzaren eta osasun zerbitzuen kasuan batik bat, errelebo falta eta zerbitzuen saturazioa jarri ziren mahai gainean. Baliabide eskasia honen zuzenean eragiten du indarkeriaren identifikazioan, bai eta salatzen duten emakumeen arretan eta prozesuan ere.

Aurrera begirako erronken artean, profesionalen gaitortza eta zerbitzu nahiz instituzio ezberdinetan garatzen diren prozesuen gaineko jakintza partekatzearen garrantzia aipatu zen. Horren bidez, arreta hobetu eta bide-laguntza egokiago bat eskaintzea litzaiteke helburua.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko koordinazio protokoloa 2022ko urtarrilean sinatu zuten Oñatiko Udalak, Osakidetzak eta Ertzaintzak.

'Gizonentzako foro irekia' sortzeko deialdia egin du udaleko Berdintasun sailak

Berdintasunerantz jarri nahi duten gizonentzako hausnarketarako foro irekia izango da. Hiru saio egingo dira: martxoaren 12an, apirilaren 18an eta maiatzaren 16an

Jendarte parekide eta feminista baterako bidean gizonentzako parte-hartzea ere ezinbestekoa da, hauen pentsaeren eta jokabideen despatriarkalizazioan eraginez. Horretarako, ezinbestekoa da gizonentzako bereaien buruak birpentsatzeko espazioak izatea. Hori kontuan hartuta, Oñatiko udaleko Berdintasun sailak 'Gizonak Berdintasunerantz' foro irekian parte hartzeko aukera eskaini nahi die herriko gizonentzako.

HELBURU OROKORRA

Berdintasunerantz urratsak eman nahi dituzten gizonentzako hausnarketarako gunea bat eskaintzea da helburua; bereaien ezinegonak eta kezak elkarbanatzeko, kritika eta autokritika egiteko...

METODOLOGIA

Metodologia aktibo eta parte-hartzailea erabiliko da saioetan. Hau da, partaideen bizipenetatik abiatutako barne-lanketa, hausnarketa eta kontzientzia-hartzean oinarritutako dinamika eraman go dira aurrera.

Gizonentzako hausnarketarako gunea eskaintzea da helburua, bereaien ezinegonak eta kezak elkarbanatzeko, autokritika eta kritika egiteko...



Ez dira saio egituratuak izango, momentuan dauden parte-hartzaileengan bizirik dauden gaietatik abiatuko dira. Dena den, saio bakoitzerako gai eta dinamika bat prestatuta eraman go dira, badaezpada, eta beharrezkoak diren edukien azalpenak ere eman go dira. Gizarte Hezkuntza graduatua eta genero parekidetasunean aritua den Joseba Gabilondok gidatuko du foroak.

EGUTEGIA ETA IZEN-EMATEA

Bi ordu eta erdiko (17:30-20:00) hiru saio egingo dira (martxoak 12, apirilak 18 eta maiatzak 16). Aurrez izena eman behar da berdintasuna@onati.eus-era idatzita, martxoaren 5a baino lehen.

Adineko emakumeen belaunaldian jarriko da arreta martxoaren 8an

Historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldietan jarriko da arreta aurtengo Emakumeen Nazioarteko Egunean. Zuetaz Harro lelopean, hiru mezu azpimarratzen ditu Emakundeek plazaratu duen adierazpenak: Belaunaldien arteko harremanaren garrantzia; berdintasunak aurrera egin dezan ahaldundutzeak duen funtsezko rola; eta adineko emakumeen balorazioa. Egungo lorpenen atzean historiako garai ezberdinetan egon diren emakumeentzako egin nahi zaie aitortza. Oñatiko Udalak ere bere adierazpena plazaratuko du martxoaren 8aren harira, eta dei egiten du Sare Feministak antolatutako ekitaldietan parte hartzera.



M8-Egitaraua

Martxoak 7

- Zine-Kluba: 'Pobres criaturas' (Zuz.: Yórgos Lanthimos). Kultur etxean, 19:30

Martxoak 8

- 11:00 Ikasleen kontzentrazioa Foruen plazan
- 11:30 Ikasleentzako tailerra Gaztelekuan
- 12:00 Kontzentrazioa Olakuan
- 18:00 Kontzertu akustikoa gaztetxean.
- 19:00 Manifestazioa Foruen plazan

Martxoak 10

- Emakumeen artisau azoka, Foruen plazan, 8:30-15:30



Mojen inguruko estereotipoak EZBAIAN

Oñatiko emakume-mojen bizimodua eta pentsaera ikuspuntu feministatik aztertu dute Itsaso Maniasek eta Jone Arrazolak, 'Selma Huxley Barkham' bekari esker eta liburu batean jaso dute ikerketaren emaitza.

Txokolateixan dago salgai liburu 10€tan



Oñatiko emakume-mojen izaera, bizimodua eta ekarpena ikuspegi feministatik aztertu dute Itsaso Manias Muñozek eta Jone Arrazola Maiztegiak, udalak ematen duen *Selma Huxley Barkham* bekaren bitartez. Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpena balioan jartzea da bekaren helburua, eta oraingo honetan herrian dauden hiru komunitateetako —Santa Ana, Bidaurreta eta Santa Eskolastika— mojak izan dira protagonista.

Ikerketa lanaren egileek azaldu dutenez, aspalditik zeukaten 'mojak-feminismoa' tandemak ikertzeko gogoia eta, zehazki, zera aztertu nahi zuten: emakume-mojen komunitateetan zein neurritan ematen diren ikuspegi zein praktika patriarkalak eta feministak.

Emakume-mojen inguruan elikatu eta nagusitu diren estereotipoak eta iruditeria kolektiboa ezbaian jarri nahi izan dute, mojej beraie ahotsa emanaz eta kongregazioetan gordetzen diren bizimoduak eta pentsamenduak argitara ekarri. Eta asmo horrekin jo zuten herriko hiru moja komunitateetara galde-askorendako erantzunen bila: zein

dira moja izateko hautuaren atzean dauden arrazoiak? Haien bizi-eredua (komuna autogestionatua) oasi txiki bat al da sistema patriarkalean? Zein ezberdintasun daude Oñatiko hiru kongregazioen artean? Iruditeria kolektiboarekin bat al dator haien bizimodua eta izaera?...

LIBURU INTERESGARRIA

Herrian dauden hiru komunitateetako mojek parte hartu dute azterlanean, talde-elkarrizketa eta, kasuren batean, elkarrizketa pertsonal sakonen bidez. Behaketa parte hartzaile bat (elkarbizitza) egiteko aukera ere izan zuten Arrazolak eta Maniasek Santa Ana komentuan, eta horietatik guztietatik jasotako informazioarekin osatu dute *'Oñatiko emakume-mojak: izaera, bizimodua eta ekarpena ikuspegi feministatik'* liburu (64 orri), zinez interesgarria. Mojen komunitate-bizitzaz, botoen esanahiaz edota hainbat gairi buruz (feminismoaz, patriarkatuaz, Elizaren baitan izandako sexu abusuez...) duten iritzia dago jasota bertan. Txokolateixan dago salgai liburu 10€-tan.

Emakumearen Etxeko antolaketa, kudeaketa eta gobernantza eztabaidatzeko saioa martxoaren 16an

Emakumeen Etxea nork, nola eta zertarako erabili ahal izango zen erabakitzeke parte hartze prozesua jarri zen abian urtarrilean. Lehenengo saioan etxearen erabilera eta erabiltzaileez hitz egin zen, eta otsailekoan exeearen antolaketaz, kudeaketaz eta gobernantzaz. .

Parte hartze fase hau osatzeko azken lan saioa martxoaren 16an egingo da, eta hemen ere antolaketa, kudeaketa eta gobernantza izango dira aztergai.

Ohi bezala, Eltzia 3. solairuan egingo da saioa gosari-tailer formatuan, 10:00etatik 13:00etara bitartean. Aldibereko itzulpen zerbitzua egongo da, eta zaintza zerbitzua ere eska daiteke aurrez udaleko Berdintasun teknikariari jakinarazita (berdintasuna@onati.eus).

Ekintzaileei zuzendutako doako prestakuntza zikloa antolatu du Mankomunitateak

Ekin Debagoienean programaren baitan enpresa proiekturen bat abian jartzeko asmoa duten pertsonen zuzendutako zazpi tailer antolatu ditu Debagoieneko Mankomunitateak. Tailerrak dohai-rik dira, baina plazak mugatuak direnez aurrez izena eman behar da. Tailer guztiak edo banaka egiteko aukera dago. Informazioa eta izen-ematea: 943 793 090 / rgarcia@debagoiena.eus.

Erakuslehoak sormenez apaintzeko ikastaroa eta aholkularitza antolatu du Udalak

Gipuzkoako Merkataria federazioarekin elkarlanean, erakuslehoak sormenez diseinatu eta apaintzeko prestakuntza ikastaroa antolatu du Udalak. Formazio aldiak 16 orduko iraupena izango du eta martxoaren 4, 6, 11, 13, 18, 20 eta 25ean izango da (13:45-16:15). Bestalde, aholkularitza zerbitzua banakakoa izango da, saltokietan. Informazio gehiago: formacion@fmg.es / 943425557.



1989ko KORRIKAREN 6. edizioko argazkia duzue ezkerrekoa. Gotzon Osinaga ageri da lekukoarekin Udanan gora, eta bere aldamenetan, ezagutu ditugunak, Maximo Garcia, Koldo Zumalde, Karlos Lopez de Munain, Imanol Oleaga, Patxi Irizar, Mixel Mujika, Jose Luis Plazaola, Enrique Olalde eta Bixente Oregi (ezagutu ditugunak). Iruñean hasi eta Donostian amaitu zen Korrika hura.

Badator KORRIKA!

Martxoaren 23an igaroko da Korrika Oñatitik, goizeko 4:15ak aldera, Legazpirako bidean. Hainbat ekitaldi antolatu dira lekukoa iritsi arteko itxaronaldia girotzeko. Korrika Kulturala ere mamitsu dator.

Duela bi urte penaz geratu ginen oñatiarrok, Korrika ez zelako gure herritik igaro, baina aurten bai, aurten bertatik bertara ikusi ahal izango du gu lekukoa gure kaleetan barrera. Hori bai, goiz esnatu beharko dugu edo, bestela, gaua luzatu, larunbat goizaldeko 4:15ak aldera iritsiko baita Korrika Oñatira, martxoaren 23an.

Aurtengo Korrika, 23.a, martxoaren 14an abiatuko da lurrik, eta hilaren 24an amai-

tuko Baionan, Euskal Herri osoa -2.700 kilometro- zeharkatu ostean, lekukoa eskutik eskura eramanez, gau eta egun, gelditu gabe, milaka lagunaren artean. 'Harro Herri' da aurtengo edizioaren leloa, euskal komunitateak euskararekiko sentitzen duen harrotasunaren adierazle, eta 'Azterketak Euskaraz' kolektiboa omenduko du.

Korrika Oñatira iritsi bitartean herri mailan eratu den batzordeak lanean dihardu

ahalik eta ongi etorrikerik be-roena emateko euskararen aldeko ekimen erraldoi honi, eta ondoko orrian ikus daitekeen moduan, ekitaldi sorta ederra prestatu dute.

EKIMEN ERRALDOIA

AEKk antolatuta, euskararen alde bi urtetik behin egiten den ekimen erraldoia da Korrika. Euskal Herri osoa zeharkatu ohi du, gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertu eta euskalgien egune-

roko landa indartzeko dirua biltzeko helburuarekin. Oso ekimen babestua eta maitatua da, eta bertan parte hartzen duen jende kopuruak go-ra egiten du eten gabe. Aurreneko Korrika 1980an egin zen, Oñatin hasi eta Bilbon amaitu zena.

Korrika egiteaz gain, Korrikarekin bat egiteko beste modu batzuk ere badaude ('Korrika Laguntzaile' izanez, Korrikako materiala erosiz...) www.korrika.eus atarian.

Catalana Occidente **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autokak
- ✓ Biltza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etebizitza
- ✓ Aurrezkitza
- ✓ Laborantza

Helbidea: Morxon 5. beheak
638 16 79 94
mikel.egana@agerintes.catalanaoccidente.com

HARALD LINDER

ETKEETAN ERA GUZTITETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERMOAK, LUR FLOTANTEAK, ARDIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILA ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, BORDONAK eta ASKATZ GERALDO

GLARUS 12 8 4 edk. - 20560 UNATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Korrika Txikia, musika, dantzak eta kantu-afaria KORRIKARI ongi etorria emateko

Heria girotu eta Korrika Oñatira iritsi arteko itxaronaldia goxatzeko asmoz, hainbat ekitaldi antolatu ditu lanean ari den herri mailako batzordeak.

Hala, martxoaren 22an, ostirala, **Korrika Txikia** (15:00) egingo da herriko kaleetan, eta, ondoren (17:00) dantzaldia izango da Foruen plazan **Gauargi** taldearen eskutik.

Jarraian (18:30) Oñatz dantza taldeak **sorgin-dantza** ibiltaria egingo du, plazan hasita, eta 20:00etatik aurrera **Skapaie elektro-txaranga** ibiliko da kalez-kale, Arranon hasita.

Gauean (21:00) **kantu-afaria** egingo da Gaztelekuan, Jose de Azpiazu musika eskolarekin elkarlanean, eta gaztetxean **DJ WATSASek** (22:30-01:30) eta **DJ BASS&DEREK** (01:30-04:00) girotuko dituzte Korrika herrira iritsi arteko orduak. Egun horretan taberne baimen berezia izango dute ordutegia luzatzeko.

Pake Leku elkartearen ere ari dira Korrikaren inguruko ekitaldiak antolatzen. Hala, hilaren 14an **lekukoaren aurkezpena** (18:30) egingo dute Pake Lekun, eta 22an, Oñatiko **euskaltzaleei omenaldia** (17:30).

KORRIKA KULTURALA

Kontzertuak, hitzaldia eta Xabier Ugarte zenari eskainitako omenaldia, Korrika Kulturalaren baitan



Otsailean izan ziren Korrika Kulturalaren baitan antolatutako aurreneko ekitaldiak: **Bizkarsoro** filma eta **Oihale-txea** dokumentalaren emanaldiekin.

Martxorako beste hainbat ekitaldi interesgarri iragartzen zaizkigu, ondoko egitarauan ikus daitekeen moduan. Musikari dagokionez, **Ibil Bedi** talde nafarraren eta **Malko** oñatiarren kontzertuez goxatzeko aukera izango dugu.

Euskararen egoerari buruzko **hitzaldi** interesgarri bat ere egongo da, Iñaki lurrebasoren eskutik. UEMAKo ikerketa teknikaria da bera, eta aurkeztu duen tesian dioenez, minorizazio gorriko egoeran dago euskara. Gordin adierazita: aztertutako adierazleek heriotza-egoeratik gertu erakusten dute hizkuntza.

Azkenik, **Xabier Ugarte** zena ere gogoan eduki nahi izan du Korrikako herri batzordeak, eta haren omenezko ekitaldi antolatu du, **Artixa** kultur elkartearekin batera. Besteak beste, 2017ko Korrikaren harira **Ikustenda** egitasmoaren baitan Xabier Ugarterekin grabatutako **Entzuteko lan isila** ikus-entzunezkoa ikusteko aukera egongo da, hark musika eta euskalgintzaren arloan egindako lan bikaina gogoratuz. Gitarra doinu eta kanturik ere ez da faltako, noski.

EGITARAUA

Martxoak 10

- **Ibil Bedi** taldearen kontzertua Antixena gaztetxean, 19:00. Burrunda Faktoriak antolatutako kontzertua.

Martxoak 16

- Gaztetxeak antolatuta egun pasa Iruñeara Korrikarekin bat egitera. Irteera Korreosen (10:00), itzulera goizeko 5:00etan. Izen-ematea (25€/15€) Arranon.

Martxoak 19

- Iñaki lurrebasoren hitzaldia: 'Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?'. Kultur etxean, 18:00

Martxoak 20

- Xabier Ugarte gogoan, omenaldi ekitaldia. 'Entzuteko lan isila' dokumentala. Kultur etxean, 19:00

Martxoak 22

- Korrika eguna. Ekitaldi ezberdinak kalean eta gaztetxean. Kantu-afaria gaztelekuan (21:00).

Martxoak 23

- **Malko** talde oñatiarraren kontzertua Gaztelekuan, 22:00.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

**Oñabike**

oñabike.com

Otadui 25, Oñati - Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK • PATINETEAK • KIROL EKIPAZIOAK



Roberto Altuna
udal euskaltegiko
zuzendaria izan da
azken ia 28 urteetan

"Euskarak akordatu orduko busti behar gaitu, lanbroaren edo erderaren antzera"

Udal Euskaltegiko zuzendaria izan da azken ia 28 urteetan Roberto Altuna Erle (Oñati, 1959). Erretiroa hartu berri duen honetan, berarekin izan gara euskaltegiak eta euskararen egoeraz berbetan.

Bedita Larrakoetxea udal euskaltegiko zuzendaria izan zara azkenengo hogeita zazpi urte eta erdian. Zein da euskaltegi-ko gaur egungo argazkia? Asko aldatu al da orain dela 20-25 urtekoaren aldean?

Iragan urteetan udal euskaltegian hiru irakasle ibili gara, eta azkenengo sei urteetan Ernesto Murgiondo, Itziar Larrañaga eta ni neu. Ikasleriari dagokionez esan, aurtengo ikasturtean 62 ikasle matrikulatu direla A1 mailatik C2 mailaraino (A1en 21 ikasle, A2n 8, B1en 15, B2n inor ez, C1en 9 eta C2n 9).

Haien profilari begira, berriz, hauxe aipa daiteke, batez besteko adina 38 urtekoa dela, emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino altuagoa dela, herrietik kanpora jaiotakoak erdia

inguru direla, eta, oro har, ikasketak maila onekoak direla.

Orain dela 20-25 urteko argazkia, ordea, bestelakoa zen: ikasleria gaztetxoagoa zen, jenero aldetik parekotasun handiagoa zegoen, gehienak bertan jaiotakoak ziren eta langabezia handiagoa izan zen garaian langabe kopurua ere handiagoa zen. Urte haietan herri mugimenduen eraginez jende asko etortzen zen euskalduntze-alfabetatzera, eta helburu instrumentala ez zen hain nabarmena.

Zein da argazki horren aurrean egiten duzun gogoeta? Oñati bezalako herri baterako asko da, gutxi da?

Ikasle kopuru hori ez da txikia, kontuan izanik gure eskaintza

Euskararen irakaskuntzari emandako bizitza

1995-1996 ikasturteaz geroztik udal euskaltegian lan egin du Altunak. Aurretik, Larraña Barnetegian-IVAP (1991-95), Bilboko IRALEn (1985-91) Arrasateko Ferixa lekuko eskola publikoan (1984-85) eta Gorritxitxin egon zen gau-eskolan (1983-84) ere jardun zuen

arruntena aurrez aurrekoa eta astean zortzi orduko erritmokoa dela. Horrenbeste orduko ikastaro batek dedikazio handia eskatzen du, zalantza barik, eta horri gehitzen badiozu ikasle gehienak helduak direla, lanean dabiltzala, eta, gainera, askotan etxeko karga ere izaten dutela, ba, ez da oso samurra hori baino jende gehiago izatea ikasturte batean.

Bestalde, ikastaro laburragoekin egin dugu makina bat saio, baina helburu zehatz bat lortzeari begirakoak izan ezik, beste guztiak ez direla oso eragin-korreak ikusten dugu. Horregatik denbora luzeagoko ikastaroen alde egiten dugu ahal dugun guztietan, baina horietarako jendea topatzea ez da beti samurra izaten.

On-line apustua ere hor dago, eta orain arte asko saiatu ez bagara ere, aurrez aurreko eskaintzarekin nahikoa lan izan dugulako, modalitate horri ere lehentxoago edo berandutxoago heldu beharko zaiola pentsatzen dut.

Zein izaten da, oro har, euskaltegiara doazen ikasleen motibazioa?


Bi motibazio nagusi daude, alde batetik, herrian integratzea, seme-alabei eskolako lanetan laguntzeko eta abar; eta bestetik, motibazio instrumentala deitzen dena, titulu bat lortzea, alegia: administrazioko lanpostu batean lehiatzeko, bai Udalean, Aldundian edo Jaurlaritzan, baita Osakidetzan, Ertzantzan edota irakaskuntza arloan ere.

Zenbat denbora behar izaten du euskara ikasten hasten den batek oinarrizko maila bat eskuratu arte?

Oinarrizko maila lortzeko hiru ikasturte jo behar duzu, A1en hasi eta B1en amaitu arte. Honen esan gura du hiru ikasturte astean zortzi orduko erritmoan sartu behar duzula, gehi etxean, kalean, norberaren kontura... egin beharko litzatekeen guztia; ondo dakigun moduan hizkuntza bat ondo menperatzeko, ikasi ez ezik, erabili ere egin behar baita, bizi esango nuke nik. Eta hor bakoitzaren inguruak eta ahaleginak zer ikusi handia dute.

Zein da udal euskaltegiaren erronka aurrera begira?

Labur esanda, datozen ikasleen asetasun maila lortzea edo betetzea izango litzateke helburu nagusia, horretarako datozen ikasleak ondo atenditu (banaka eta taldeka lan eginez, talde giroa sortuz, ekintza erakargarriak eskainiz, input interesgarriak emanez... etab.) bakoitzak duen helburua bete edo hori lortzeko



Argitalpenak

'Oñatiko euskaria: ezagutu, aztatu, egin', 'Oñatiko aditz-taulak', 'Oñatiko eran eskribituko argibidiak', 'Oñatiko euskararen hizkuntza-pilulak', 'Gure katona'.... Makina bat dira bakarka edo talde-lanean Roberto Altunak urte hauetan argitaratu dituen gramatika, hiztegi eta dibulgazio lanak.

egin beharreko bidea samurragoa izan dezan.

Aipatu helburua lortzeko irakasleen prestaketa, gogoia eta dedikazioa ezinbestekoak diren arren, zer edo zer gehiago behar da engranaje guztiak ondo funtziona dezan, esaterako, lan administratiboaren karga arintzeko HABEK onartutako giza baliabideak ekartzea, eta azpiegituraz ere ondo hornitzea euskaltegia: berokuntza sistema egokia ipintzea, ordenagailu berriak erostea, ikasgeletan arbel digitalak jartzea, eta abar. Horrela, bakoitzak bere ardurak hartuta eta baliabide onez jantzita, lanari hobeto heldu ahal izango diogu eta emaitzak ere askoz hobekak izango dira.

2021eko euskararen kale-erabilerako datuek zioten 10 herritarretik 7k euskaraz zihardutela, baina susmoa dut kopuru hori puztu samartuta ez ote dagoen

Nola ikusten duzu euskararen egoera herri mailan? 2021ean egindako azken neurketaren arabera %71,5ekoa zen erabilera herriko kaleetan. Ze irakurketa egiten duzu?

2021ean egindako euskararen kale-erabilerako datuek 10 herritarretik 7k euskaraz dihardutela baldin bazioten ere, horri beroena kenduko nioke; izan ere, egunerokoak oso bestelako errealitate tematia jartzen digu begien aurrean: batetik, umeen joera erdaraz berba egitekoa gorantz omen doa, eta, bestetik, nagusien gehiengoak ere euskara bigarren hizkuntzatzat dauka. Horregatik, susmoa dut kopuru hori puztu samartuta ez ote dagoen.

Euskararen normalizaziorantz jotzeko edo herrian bizi dugun euskararen nagusitasun erlatibo hau bermatzeko etengabeko ekinbidea behar da, gure hizkuntzak akordatu orduko busti behar gaitu, lanbroaren edota gainerako erderen antzera. Horrekin esan gura dut herri mailako erakunde guztiak (administrazioa, komunikabideak, irakaskuntza eta lan mundua ere bai) euskaraz ganoraz funtzionatzeaz gain, kale mailako erabilera areagotzeko bestelako mila ekintza ere egin beharko direla: ostalaritza eta zaintzako langileentzako hiztegitxoak, horiei begirako online ikastaro laburrak, eta abar. Izan ere, zerbitzu horietan diharduen jende askok euskarari helitzeko gogo apur bat izan arren, dituen bizi baldintzengatik edota beste mila arrazoirengatik nekez etorriko da euskarazko

Herriko txoko guztietara iritsi nahi? Jarri zure iragarkia aldizkarian publi@onati.eus

eskolak hartzea, esaterako, eta euskal mundutik kanpo bizitzen jarraituko du.

Sarritan pentsatzen dut etorri berriak bertakotu beharrean, gu gabiltzala kanpotartzen, eta euskara gure herrian nagusitasun erlatibo horretatik ghetto-ko hizkuntza edo beste milaren artean beste bat gehiago izatera pasa daitekeela ziztu bizian, edo arrisku hori dagoela behintzat.

Oraindik, behintzat, dezente hitz egiten da euskaraz Oñatin, baina euskara hori gero eta pobregoa omen da. Ados? Kezkatzen zaitu horrek?

Zorionez, oraindik badago gure herrian, gazte, heldu eta zahar dezente berbalari edo komes-tante ona dena, baina, aldi berean, baita elkarrizketa arrunt edo luze batean euskaraz moldatzeko ezintasun nabariak dituen ere, euskara nanoa edo maskala duen jendea, alegia. Horri gramatika kontuetan akats egitea edota erdarakada bat sartzea baino larriagoa dela irizten diot, eta horrek asko kezkatzen nau, hizkuntz aldaketa edo ordezkapena dakarrelako konturatu orduko, eta hori pasatzen dabilen zantzuak ere badira.



Udal euskaltegiaren lantaldea: Ernesto Murgiondo, zuzendaria, Itziar Larrañaga eta Itziar Mugiondo.

Elkarrizketa batean euskaraz moldatzeko ezintasun nabariak dituen jende asko dago eta horrek asko kezkatzen nau, hizkuntz aldaketa edo ordezkapena dakarrelako konturatu orduko

Esperientzia luzea duzu euskararen irakaskuntzan. Ze aholku emango diozu zure ordezkoiari?

Bai, nire ordezkoa Ernesto Murgiondo oñatiarra izango da, berak hartuko du euskaltegiko zuzendaritza. Lankide izan gara urte askoan eta nik berarekin asko ikasi dut, beraz ez dut uste aholkurik emateko nagoenik. Zortetik onena eta indar guztia opa diot bakar-bakarrik erronka berri honi aurre egiteko.

Bestetik, irakasle postua betetzeko Itziar Murgiondo oñatiarra kontratatu du Udalak, eta haren gaztetasuna Itziar Larraña-

garen urtetako esperentziarekin uztartuta lantalde bikaina osatuko dutela iruditzen zait. Poz-pozik nago, ziur nagoelako euskaltegiko jardunari ezin hobeto helduko diotela. Zorionak, beraz, hiruroi!

Eskerrik asko, Roberto.

Kontzejupetik aldizkari honen kolaboratzaile fin eta zintzoeneko bat izan da Roberto Altuna. *Oñatiko euskeria* dela, *Ttirri-Ttarrara* dela, edo azken urte hauetako *Itten bat* atalean ehunka artikulatu idatzi ditu. Beraz, eskerrik beroenak, Roberto. (www.oñati.eus atarian daude lan guztiak).



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com



*2023ko neguan Elkar Heziko ikasle ohien artean egindako galdeketa oinarritutako informazioa.



Xabier Igartua,
udaleko
Zerbitzuak
batzordeko brurua
eta Alaia Alvaro,
Energia Bulegoko
teknikaria

energiabulegoa.onati.eus

Energia aholkularitzarako BULEGO BIRTUALA

Udalak **Energia Bulegoa** jarri zuen martxan iaz, herritarrei gas eta argindar fakturen inguruko informazioa eta aholkua emateko, eta orain bulego horren **webgunea** egokitu du, informazio hori guztiori etxetik kontsultatu ahal izateko

Argindar eta gas fakturen inguruan herritarrei informazio gardena ematea. Horixe da Udalak 2022an aurkeztu zuen Oñatiko Energia Planean jasotzen diren zortzi esku-harzteetako bat, eta helburu horrekin jarri zuen martxan Energia Bulegoa (Bidebarrieta kaleko 24an) iazko martxoan.

Orduz geroztik bulego horretan informazio eta aholkularitza zerbitzu pertsonalizatua eskaini zaie bertara hurbildu diren herritarrei, gas eta argindar faktura eta kon-

tratu mota ezberdinen inguruan. Eta, egia esan, askorentzat oso lagungarria gertatu da, behar baino hiru aldiz gehiago ordaintzen ari zirela ikusi baitute, zenbait kasutan.

Bada, orain, urrats bat gehiago ematea erabaki du Udalak informazio gardentasunaren norabidean, eta bulego birtuala egokitu du, bulego fisikoan ematen den informazioa Internet bidez ere kontsultatu ahal izateko. Bidebarrieta kaleko bulegoak

energiabulegoa.onati.eus da udalak egokitu duen bulego birtualaren helbide zuzena. Bestela, udalaren webguneko (onati.eus) goiburuan egokitu den esteka sakatuta ere iritsiko gara bertara

zabalik jarraituko du, informazioa aurrez aurre jasotzea nahiago duten, edota teknologia berriei nahi bezain ondo moldatzen ez diren herritarrentzat, baina nahi duenak etxetik bertatik ere kontsultatu ahal izango du informazio hori, online, udalak prestatu duen **energiabulegoa.onati.eus** bulego birtualaren bidez.

ZURE KONTSUMOAK KONTSULTATU

Askotariko informazioa aurkituko dugu Energia bulegoaren webgunean, lau ataletan antolatuta, argi eta erraz ulertzeko moduan.

Hasteko udalak 2022an onartu zuen Energia Planari buruzko oinarritzko informazioa ematen da: helburuak eta energia planak barnebil-

Gure etxeko argindar kontsumoa eta gehienez erabiltzen dugun potentzia kontsultatzeko aukera eskaintzen du webguneak, Datadis plataforman alta emanda

tzen dituen zortzi esku-har-teen inguruko azalpen laburra.

'**Aholkularitza Bulegoa**' atalean informazio praktikoa aurkituko dugu. Besteak beste, gure etxeko argindar kontsumoa kontsultatzeko aukera eskaintzen digu, edozein delarik ere gure konpainia, *Datadis* plataforman alta emanda (webgunean bertan azaltzen da zer egin behar den alta emateko eta nola erabiltzen den aplikazioa). Tresna interesgarria da, gure argindar kontsumoa —egunekoa, astekoa, hilekoa edo urtekoa— eta gehienez erabiltzen dugun potentzia kontsultatzeko aukera ematen baitu, eta horrek erakutsiko baitigu kontratatuta dugun kilowatio kopurua egokia edo gehiegizkoa ote den, horrek fakturan daukan eraginaren, noski.

Gasaren kontratuari eta kontsumoari buruzko kontsulta egiteko merkaturatzailearen web orrira jo behar da.

'**Fakturak**' atalean, gas eta argindar fakturak ulertzeko hainbat argibide aurkituko dugu *energiabulegoa.onati.eus* webgunean: zein kontzeptugatik ordaintzen dugun, ze tarifa mota dauden, nola kalkulatu den kontsumituta argindarraren kostua, fakturan gutxiago ordaintzeko aholkuak...

Argindar eta gas fakturak ulertzeko hainbat argibide aurkituko ditugu webgunean. Baita bonu sozial elektriko eta termikoa eskuratu ahal izateko baldintzei buruzkoa ere

Merkatu librea eta merkatu arautuari buruzko informazioa ere ematen da bertan: bien arteko aldea, eta horren arabera kontratu mota bakoitzaren ezaugarriak.

'**Diru-laguntzak**' atalean argindar fakturan aplikatu daitezkeen deskontuei buruzko informazioa ematen da: Bonu Sozial Elektrikoa eta Bonu Sozial Termikoa. Bakoitza zer den, deskontu horiek jasotzeko baldintza edo betebeharrak zein diren, eta zein erakundek ematen dituen azaltzen da bertan, besteak beste.

Azkenik, '**Kontsultak**' atalean, Energia Bulegoko teknikariari kontsultak egin edo informazioa eskatzeko aukera ere ematen du web orriak.

AURREZ AURREKO BULEGOA
Goian esan bezala, Energiaren Bulegoak zabalik jarraituko du eta nahi duenak bertara joateko aukera izango du informazio eske. Gogoratu, Bidebarrieta kaleko 24an dagoela udalaren energia bulegoa (Oñargi eta Onaroren egoitzan) eta bertako ordutegia hau dela: astelehenetik ostegunera 9:00-14:00/15:00-17:45, eta ostiralean 9:00-14:45. Bertara joan aurretik hitzordua hartzea komeni da, telefonoz edo emailez: 943716403 / energia.bulegoa@onati.eus.



Udal eraikinetako energia kontsumoari buruzko informazioa herritarren eskura

Udalak aurkeztu berri duen *energiabulegoa.onati.eus* webgunean 'INFORMAZIO ENERGETIKOA' atalean udalera iristeko eta udal eraikin eta ekipamendu ezberdinetako energia kontsumoaren bilakaerari buruzko informazioa eskaintzen da.

Udalak barne kudeaketarako software bat instalatu du, trantsizio energetikoaren bidean ditugun erronkei eta Eusko Legebiltzarrak onartu berri duen Trantsizio Energetikorako legeak ezartzen dituen betebeharrak ahalik eta modu eraginkorrenean erantzuteko asmoz. Software horren helburua da udal eraikin ezberdinetako kontsumo datuak behar bezala monitorizatzea, ondoren kontsumoa murriztera zuzendutako neurri eraginkorrak hartu ahal izateko.

Eta informazio hori guztiori herritarren eskura jartzea erabaki du Udalak, Energia Bulegoaren webguneko 'Informazio energetikoa' atalean, esan bezala. Bertan ikus daiteke, adibidez, zenbat energia kontsumitzen den udal eraikin eta ekipamendu ezberdinetan, eta kontsumo horren eraginez atmosferara isurtzen den CO₂ kopurua.

Urtetik urterako kontsumoaren bilakaera ere ikus daiteke eta, hala, azken hamabi hilabeteetan kontsumoa %3 murriztu dela ikus dezakegu (-193.419kwh), eta jaitziera horrek kutsadura mailan ez ezik, ekonomikoki ere udalarentzat ekarri duen aurrezkia (547.642€) ere azaltzen da.

Datu orokorretan geratu barik, udal ekipamendu eta eraikin bakoitzeko kontsumoa eta bakoitzaren portae- ra energetikoari buruzko informazioa ere ikus daiteke.

UR KONTSUMOA

Argindarrarena ez ezik, ur kontsumoari buruzko datuak ere ematen dira webgunean; zenbat ur kontsumitzen den udal eraikin eta ekipamenduetan, eta azken hilabeteetako bilakaeraren berri, besteak beste.

Azkenik, energia kontsumoari buruzko kontsultak egiteko edota gure iritzia emateko atala ere badago.



Bizikletentzako aterpeak

Mugikortasun jasangarria eta, zehazki, bizikletaren erabilera sustatzeko asmoz, gazteak dabilzan herriko gune ezberdinetako bizikleta aparkalekuetan aterpeak egokitzen jarraitzen du Udalak. Goiko argazkietan ikus daitezke azkenaldian egokitu dituen bi estalkiak, bata Azkoagainen (16.746€) eta bestea Jose de Azpiazu musika eskolako sarreran (5.669€). Aurretik, ikastetxeetako sarrera inguruetan eta postetxeko autobus geltokian ere egokitu dira halakoak.



Urgain eskolako jolasgunea berritzeko bigarren faseko lanak lizitaziora atera ditu Udalak

Lur Paisajistak enpresak idatzitako proiektuaren arabera ari dira eraberritzen Urgain eskolako jolasgunea. Iaz burutu ziren lehen faseko lanak: patio ondoko lur saila jolasgunean integratu eta urak biltzeko kanalizazioa egin zen. Gainera, kirol guneko eremu gogorraren azalera murriztu eta jolas eremu berritzailea sortu zen. Bigarren faseko lanak bi zatitan banatzea erabaki da eta, hala, 'A' atalari dagozkion lanak atera dira orain lizitaziora. Kirol eremuko obra zibila egin eta saneamendu sarea eraberritzeaz gain, argiztapena hobetu eta kirol gunearen zoladura egingo da. Kirol elementuak ere berrituko dituzte. Lanek 244 mila euroko aurrekontua dute.

Telekomunikazio teknikaria kontratatu nahi du MERKAOÑAK

Merkaña S.L. udal enpresak telekomunikazio teknikaria kontratatatzeko deialdia egin du. Hauxe eskatzen da: Telekomunikazio eta Informatika Sistemetak goi mailako teknikari edo baliokidea den formazioa, antzeko lanpostuetan eskarmetua, gida baimena eta euskarako 3.HE (EGA) maila. Interesatuak bidali curriculum merkaona@merkaona.eus helbidera **martxoaren 22a** baino lehen.

Ur Uhinak parkean komun finkoa ipiniko du Udalak

Berez garbitzen den komun publiko finkoa ipiniko du Udalak Eltzia aurrealdeko ur txorrotan parkean 54.000€ko aurrekontuarekin. Komuna hornitu eta instalatzeko prozesua abian da dagoeneko, eta uda parterako pres egotea espero da. Gogoratu, *Partaidetzako Aurrekontuak 2023/24* prozesuan hirugarren proiekturik bozkatuena izan zela, 402 bozekin.





Esku-orri eta bideo bana, auzo-konpost guneen erabilera egokia azaltzeko

Egun, 208 familia daude izena emanda herriko zazpi auzo-konpost guneetan

Auzo-konpost guneen erabilerari eta konposta egiteko prozesuari loturiko bideoa eta eskuorria aurkeztu ditu Udalak. Dagoeneko, gune hauen erabiltzaile diren familien etxetara banatzen hasi da esku-orriak. Auzo-konpost guneetan egin diren azken eguneraketen eta erabilera egokirako irizpideen berri ematen da bertan. Gogoratu, azken urte hauetan hainbat neurri hartu dituela Udalak konpost guneak hobetu eta prozesua optimizatzeko: mantenu jarraitua bermatu da, argiztapena egokitu da, ontziak hobetu dira, iturria jarri da, txartel bidez zabaltzeko sarrailak jarri dira, bertan sortutako ongarriaren banaketa prozesua definitu da...Horien guztien berri emateko bideo bat ere prestatu du Udalak (ikusi beheko QRan).

Egun 208 familia daude herriko zazpi auzo konpost guneetan izena emanda eta, orotara, 2,7 tona konpost jasotzen da urtean. Auzo konpost guneen onurak ugari direla uste du Udalak: ingurumen kontzientzia areagotzen du, komunitate sentimendua indartzen du, zabor gutxiago sortzen da eta herrian geratzen den ongarria sortzen da, besteak beste. Horregatik, dei egiten die herritarrei auzo konposta guneetan izena ematera udaletxeko HAZ bulegoan. Gogoratu, gainera, auzo-konposta egiten dutenek %25eko hobaria dutela zaborraren tasan.



Aurrekositakoa baino ia 85.600 euro gehiago jasoko ditu Oñatik Foru Funtsetik

2023ko zerga bilketa aurrekositakoa baino emaitza hobea eman du Gipuzkoan eta, horri esker, herrialdeko udalak aurrekositakoa baino 5 milioi gehiago jasoko dituzte Udalen Finantzaketarako Foru Funtsetik. Oñatiri dagokionez 85.584 euro gehiago, guztira 9.479.775 euro. Bestalde, ezohiko ordainketa bat ere jasoko dute Oñatiko eta Gipuzkoako gainontzeko udalek. Zehazki, energia enpresa eta finantza erakundeei ezarritako aldi baterako kargatik datorren dirua da (7 milioi guttira) eta Oñatiri dagokionez 109.199 euro.

Gazteen emantzipaziorako udal dirulaguntzak eska daitezke jada

Etxebizitzak alokatzeko Udalak 18 eta 35 urte arteko gazteei ematen dien dirulaguntzen deialdia argitaratu da. Onuradunek 12 hilabeteko alokairu kontratua izan behar dute, gutxienez. Hileko alokairu prezioaren erdia estaltzeko dirulaguntza jaso ahal izango dute, hileko 250 euroko mugarekin. Eskaerak udalaren webgunean eskura daitekeen eskaera orria beteta egin daitezke, erregistro elektronikotik, edo udal bulegoetan, aurrez aurre, urriaren 11ra arte. Udalak 65.000 euroko kontu saila dauka aurten emantzipaziorako dirulaguntzetarako.

XVI eta XVIII mendeko lau dokumentu zaharberituko ditu Udalak

Udal artxiboko XVI eta XVIII. gizaldieta-ko lau dokumentu berritza erabaki du udalak. Zaharrena Perez de Hernani familiaren inguruko pleitu zibil bat da, XVI. mendekoa. Beste hirurak XVIIIkoak dira: udal kontu-liburu bat, armen espediente bat, eta oinetxe baten inguruko kontu-ematea. Zaharberitze lanak Marta Gatell Albaladejo enpresak egingo ditu 4.428 euroko aurrekontuarekin.



Deba Garaia-Landa Garapena elkarteak gerentea kontratatze deialdia egin du

Deba Garaia elkarteak gerentea kontratatu nahi du Bergarako bulegorako. Bailarako landa garapenerako adostutako programa aurrera eramateko baliabideak kudeatu beharko ditu. Kontratu finkoa eskaintzen da. Eman izena www.seleccionformacion.com (erreferentzia 11814) martxoaren 25a baino lehen

ETXiAN
Inmobiliaria

Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

etxian@etxian.net
www.etxian.net

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Azaleko argazkia:
Kontzejupetik.

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Maketazioa:

Abao Komunikazio Agentzia

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzieren erantzunkizunik.

Eskerrik asko, Oñati

Misio Taldearen izenean, Manu Egaña

Inaute asteartean plazan egindako txokolatada solidarioan ia 1.000 euro batu zituen Oñatiko Misio Taldeak, eta gastuak kenduta, 926 euro bideratuko ditu Gineako Daghuél herrian eraikitzen ari diren *Oñati* eskolarako, zehazki, neska gazteei zuzendutako formazio tailerra hornitzera.

Parrokiako Misio Taldeak eskerrak eman nahi dizkie txokolate solidarioan laguntzaile izan zituzten *Betik*, *Gereta* eta *Lacturale* enpresei, ekimena posible egin duten guztiei, eta modu batera edo bestera parte hartu eta lagundu duten herritar guztiei.



Udal Euskaltegiko matrikula-zozketaren irabazlea

Udalak ikasleen matrikulazio-kostuak arindu eta euskaltegiaren matrikulazioa bultzatzeko, matrikula baten zozketa egin ohi du euskaltegian ikasturte osoko matrikula egin duten ikasleen artean. 2023-24ko sariduna C2 mailako **Miren Galdos Egaña** izan da. Argazkian sariduna bera eta Udal Euskaltegiko zuzendari Roberto Altuna saria ematen.

OHAR ETA DEIALDIAK

Auzoetan paseatzean txakurrak lotuta eramatea eskatu dute

Landa auzoetan aske eramaten diren txakurrekin sortzen diren arazoak atera ziren berriz ere mahai gainera auzo-alkateen otsaileko bileran. Udalak ipini izan dituen seinaleak botata edo estalita agertu izan dira. Beraz, gogoratu, auzoetan paseoan ibiltzen direnek lotuta/kontrolpean eramane behar dituztela txakurrak.

Oñatin bizi diren bergararren bazkaria

Oñatin bizi diren Bergarakuek bazkaria egingo dute martxoaren 16an, Pago Uson. Eguerdiko 12:00etan elkartuko dira, 13:15etan talde argazkia ateratzeko. Izena emateko azken eguna, martxoak 1, losu Iñarraren izenean Laboral Kutxan ireki den kontuan 50€ko sarrera eginda.

Genozidioaren aurkako elkarretaratzea

'Genozidioa gelditu. Palestina askatu' lelopean elkarretaratzea egingo da martxoaren 2an herriko plazan, 13:00.



Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

HURBILEKO IRAGANA (I)

Esteban Irusta Mallea

Iragan hurbileko gertaerek ez dute interes berezirik sortzen ezagutu ez dutenengan. Bizi eta ezagutu dituztenek, berriz, gustura gogoratzen dituzte. Artikulu honen helburua nire ume eta gazte denboran Oñatin, gehienbat, ezagutu eta bizitako historia batzuk azaltzea da. Beste batzuk geure aurrekoei entzundakoak dira. Hauetakoekin hasiko naiz. Oñatiko Laterandarren komentua sortu zenetik (1884) Bizkaiko Munitibar herri txikitik etorritako **Pablo Onaindia** eta **Andres Garrogerrikaxebarria** agertzen dira. Pablo oso baserri zalea omen zen eta bere garaiko kanonigoen esanetan, bere bitartez landatu zuten lehenbizi Oñatin insignis pinua Pullangoa baserrian.

Baserri honekin bazuen harreman berezia. Horrela uler-tzen da nola, bere planoekin, eraiki zuten Munitibarren bere senideena zen *Urtzile* baserria. Badirudi, **P. Onaindiak** (1869-1929) bazuela Munitibartik hurbil dagoen Lekeitioko **Adan de Yarza** familia ospetsuaren ezaguera. Familia honetako Carlos aitak hasitako lanari jarraituz, bere seme Mario (1846-1920) insignis pinuaren aitzindari eta bultzatzaile izan zen Euskal Herrian. Mexikoko Monterreitik ekarri eta Zubietara bere jauregiko berdegunean egin zituen lehenbiziko probak. Gure ume denboran Insignis pinua zuhaitz berria zen eta Munitibartik Lekeitiara egindako txango batean, Adan de Yarzaren eraginez landatutako neurri handiko bat ikus-teak gure miresmena sortu zuen. Urte asko geroago, 1960an, Baztan-Bidasoa bailaran zuhaitz hau ezezaguna zen.

Pinua alde batera utzi eta denboran 1945ra atzera eginez, nik ezagutu nuen orduko Oñatik zerikusit gutxi zeukan gaurkoarekin. Herritar gutxi zeukaten autoa, eta errepideak libre egoten ziren lasai paseatzeko. Baina gure paseoak ez ziren errepidera mugatzen. Urbia eta Aizkorri nahitaezko bisita izaten ziren, eta mendiz Antzuolara joan izan ginen, bertako Maristetako ikasleekin futbol partiduak jokatzerara.

Pinua alde batera utzi eta denboran 1945ra atzera eginez, nik ezagutu nuen orduko Oñatik zerikusit gutxi zeukan gaurkoarekin. Herritar gutxi zeukaten autoa, eta errepideak libre egoten ziren lasai paseatzeko. Baina gure paseoak ez ziren errepidera mugatzen. Urbia eta Aizkorri nahitaezko bisita izaten ziren, eta mendiz Antzuolara joan izan ginen, bertako Maristetako ikasleekin futbol partiduak jokatzerara.

FUTBOLA ETA TXIRRINDULARITZA

Futbolarekin jarraituz, Oñatiko lehen futbol zelaia 1936ko guda aurretik Ibarren zegoela dakigu gure aurrekoei entzunda. Geroago, 1949an egin zen Azkoagaingoa. Aloña Mendi federatu aurretik lagun arteko hainbat partidutan parte hartu zuten

jokalari batzuk hauek ziren: **Andres Umerez**, **Joxe Arregi** eta **Pedro Maiztegi** (atezainak) **Juanito** eta **Julio Ibarrodo** (anaiak) **Joxe** eta **Felix Altuna** (anaiak), **Fernando Gereta**, **Nikolas Erostarbe**, **Juan Arkauz** (Kukarro), **Patxi Urzelai** (Kaio), **Federiko Mendizabal** eta **Antonio Ugarte**, besteak beste. Hurrengo urteetan, hauetako batzuek futbol federatuan jokatu zuten. Eta inaugurazio erdi-ofizial batean, **Jose Luis Santa Cruz**, **David Irusta** eta **Isasmendik** ere parte hartu zuten.

Orduko baloiak desberdinak ziren eta guk estreinatu genuen baloi modernoa, Argentinan bizi ziren Laterandarrek ekarri. Beraien eraginez hasi ginen beisbolean eta saski-baloian jokatzen. Beisbola laster alboratu genuen, eta saski-baloirako zaletasuna sortzeko Donostiatik Fortuna taldea ekarri zuten. 1949. urtea zen eta garai horretan Oñatin kirol hau ez zen praktikatzen. Laterandar ikasleen artean ere ez zuen arrakasta handirik izan; futbolak eta pilotak nagusi izaten jarraitu zuten.

Esku-pilota edo paletan jokatzekeo Loiola txokolate fabrikari eta Garay-ko lursailean, oraindik zutik dagoen pilotalekura joaten ginen. Komentu barruan, ping-pong, billar, xake eta beste jolasak ohikoak ziren. Herri mailan, Oñati txirindularitza nabarmendu zen. Hiru lasterketa egiten ziren: Arantzazuko Igoera, Ziklo-Krosa eta nahiko berezia eta berria zen Kilometro bateko binakako lasterketa, San Kristobal ermitan hasi eta Bidaurreta parean bukatzen zena.

Arantzazuko igoera 1935ean hasi zen, **Vicente Truebare** garaipenarekin. Hurrengo urtean **Klaudio Leturiaga** (Banastain) oñatiarra izan zen garailea, faborito nagusia zen **Federiko Ezkerra** bizkaitarrari irabazita. Urkiolako igoeran ere Leturiaga nagusitu zitzaion, egun batzuk geroago. Ezkerra izen handiko txirindularia zen, Tourrean etapa bat irabazitako eta Espainian lortutako hainbat garaipenengatik. Berri irabaztea lorpen handia zen. Garai horretako Oñatiko

beste txirindulariak hauek ziren: **Roman Igartua**, **Gregorio Idigoras** (Soraluze), **Benito Aias-tui** (Farretxe) eta, geroago, **Ignazio** eta **Rosalio Urreisti** anaiak. Idigorasek esana da, bizikletaz joan zela Madrilera 1936ko Espainiako Vueltan parte hartzera.

Ikusten denez, oñatiarren bizikleta-zaletasuna aspaldikoa da. Horregatik, ez da harrizkoa 1940-1950eko hamarkadetan ospatzen ziren lasterketetara ekartzea orduko Euskal Herrian, Espainian eta mundu mailan txapeldun handiak zirenak. Urte hauetan ez zegoen bidaiatzeko gaurko erraztasunik, baina milaka ziklistazale etortzen zen Oñatira lasterketa hauek ikustera. Komentuan bizi ginenok ere murgilduta geunden giro horretan.

beste txirindulariak hauek ziren: **Roman Igartua**, **Gregorio Idigoras** (Soraluze), **Benito Aias-tui** (Farretxe) eta, geroago, **Ignazio** eta **Rosalio Urreisti** anaiak. Idigorasek esana da, bizikletaz joan zela Madrilera 1936ko Espainiako Vueltan parte hartzera.

» Pablo Onaindia kanonigoaren bitartez landatu omen zen lehen Insignis pinua Oñatin

» Geuk estreinatu genuen futboleko baloi modernoa, Argentinan bizi ziren laterandarrek ekarri



Elbarrituen alde 1967/68 denboraldian Azkoagainen Aloña Mendiren aurka jokatu zuen Agustinoen taldea. Zutik: A. Lazcoz, J. Bilbao, M. Lakuntza, J.L. Galdos, A. Garay, C. Arabiourrutia eta A. Arabiourrutia. Makurtuta: B. Madina, I. Murua, L. Ezeolaza, J. Zubiarain, R. Etxegarai eta A. Elorza.



Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> UDALEKU IREKIAK <<

Aurtengo Udalekuei ere maitasunez eta gogoz helduko diegu. Familien kontziliazio egoeran laguntzeko eta haurrei merezitako uztaila eskaintzeko helburuarekin. Oinarrian landuko ditugun balioak euskara, tratu onak, hezkidetzak, emozioak, natura eta kalea gureganatzearen eta errespetatzearen garrantzia, parte hartzea, eta aniztasuna izango dira. Guztia Jolasa oinarri hartuta.

NOIZ: Ekainaren 24tik uztailearen 19ra. **ORDUTEGIA:** Zaintza zerbitzua 08:15 -10:00, Udaleku irekiak 10:00 – 13:00, **ADINA:** 2012-2020an jaiotakoak (biak barne). **TOKIA:** Eltzia eta herriko gune ezberdinetan. **MATRIKULA:** Lehenengo haurra 77,88€ , bigarrena 67,06€ gehiago, hirugarrena 54,08€ gehiago, laugarrenetik aurrera doan. Zaintza zerbitzuagatik: lehenengo haurra 31,20€, Bigarrena 20,80€ gehiago, Hirugarrena 10,40€ gehiago, laugarrenetik aurrera doan.

HAURREN IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 4tik 15era. **IZENA EMATEKO MODUA:** Online, www.onati.eus helbidean. Behin ordainketa eginda, online izenematea bete beharko da, umeen arduradun baten nortasun agiriaren kopia eta aipatutako ordainketa agiria gehitu beharko dira. **EZ DA EPEZ KANPOKO IZEN EMATERIK ONARTUKO.**

UDALEKU IREKIEN BEGIRALEEN KONTRATAZIOA

IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 4tik 15era. **LEKUA:** Oñatiko Udaleko Zerbitzu Telematikoetan, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo Posta bulego batean. HAZko ordutegia: 07.30-15.30. **HEZITZAILEEN FORMAZIO SAIOAK:** Ekainaren 8 eta 15ean izango dira. Derrigorra izango da formazio saioetara etortzea. **BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO:** Oñatiko Udaletxean edota www.onati.eus.

>> ARTE UDALEKUAK <<

Lehenengo haurra 77,88€ , bigarrena 67,06€ gehiago, hirugarrena 54,08€ gehiago, laugarrenetik aurrera doan.

HAURREN IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 4etik 15era (biak barne). **IZENA EMATEKO MODUA:** Online; www.onati.eus helbidean. Behin ordainketa eginda, online izenematea bete beharko da, umeen arduradun baten nortasun agiriaren kopia eta aipatutako ordainketa agiria gehitu beharko dira. **EZ DA EPEZ KANPOKO IZEN EMATERIK ONARTUKO.**

ARTE UDALEKUEEN BEGIRALEEN KONTRATAZIOA

IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 4tik 15era. **LEKUA:** Oñatiko Udaleko Zerbitzu Telematikoetan, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo Posta bulego batean. HAZko ordutegia: 07.30-15.30. **BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO:** Oñatiko Udaletxean edota www.onati.eus.

>> GAZTE EMANTZIPAZIORAKO DIRULAGUNTZAK <<

Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak alokairuzko etxebizitza eskuratzea sustatzea helburu duten diru-laguntzak martxan jarri ditu aurtengo ere, eta honez gero 2024 urteari dagokion epealdia dagoeneko zabalik dago urriaren 11rarte. **BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO:** Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria sailean, Gaztelekuan edota www.onati.eus.

AGENDA:

Martxoak 1: Debagoieneko Bapateko **Bertso Topaketa**, Txinparta bertso eskolak antolatuta. •

Martxoak 8: **Emakume** langileen egunarekin lotutako ekintzak Gaztelekuan. •

Martxoak 17: **BELE** taldearen kontzertua Gaztelekuan (Matinee, 12:30) 8€. • **Martxoak 23:** **Malko** taldearen kontzertua Gaztelekuan (22:00) 3 € •

KUBOko eta TOPALEKUko ekintzak: **Martxoak 2 eta 3:** **Laser Tag** • **Martxoak 3:** **Altxorraren** bila. • **Martxoak 10:** **Pintxo** lehiaketa • **Martxoak 16:** **Talentu** lehiaketa.

Mobilizazioekin jarraitzea erabaki du Natrako langileen asanbladak

Natrako zuzendaritzaren itxikeria ikusita, protesta ekinzekin aurrera jarraitzea erabaki zuten otsailaren 15eko asanbladan bildutako langileen %97ko babesarekin (223 aldeko boto, 4 ezezeko eta 3 zuri). Hala, hurrengo lau asteetarako 4 orduko lanuzteak egitea erabaki dute.

LAB eta ELA sindikatuek salatzen dutenez, enpresak lau txandatako lanaldia ezarri nahi die urte osorako, eta enpresa batzordeak horri uko egin dionez, zuzendaritzak ez du negoziatzen ja-



rraitu nahi. "Errelebo kontratua xantaia gisa erabili nahi dute eta ez dute lan erreformen aurkako blindajeak aplikatu nahi", adierazi dute sindikatu etako ordezkariak.

Soldatak eta kategoriak eguneratzea, aldizkako kontratu finkoak mugatzea eta 4. txandako baldintzak duintzea eskatzen dute, besteak beste.

Autobus zerbitzua hobetzeko plana eramango dute bailarako alkateek diputaziora

Debagoieneko alkateak martxoaren 18an elkartuko dira Azahara Dominguez mugikortasun saileko diputatuarekin. Iazko azaroan batu ziren aurreneko, eta mugikortasun antolaketa plan berria egiteko beharra ikusi zuten. Bada, alkateek plana egiteko beharren identifikazio lana egin dute jada, eta hori da martxoko bilerara eramango dutena.

Alde batetik, bailarako herri guztien arteko konexioak areagotu beharra ikusten dute, eta baita beste eskualde eta hiriburuekin ere. Bestalde, erabiltzaileen eskaerak aintzat hartuta, ordu-tegiak eta konbinazioak hobetzea, puntualtasuna bermatzea eta langile zein erabiltzaileen segurtasun arazoei irtenbidea ematea eskatuko dute.

OÑATIKO EAJ-K AUTOBUS LANZADERA JARTZEA ESKATUKO DU

Oñatiko EAJ alderdiak ere bilerara eskatu dio Aldundiko mugikortasun diputatuari, Oñati eta San Prudentzioko autobus geltokiaren arteko lotura hobetzeko helburuarekin. Jeltzaleek Oñati eta Elorregi lotuko dituen anezka edo lanzadera zerbitzua jartzea eskatuko dute, Debagoieneko garraio publikoaren sarearekin lotura samurtzeko.

Garraio publikoaren konexioa hobetzea Oñatiko beharrian handia da, EAJren ustetaz, eta lanzadera zerbitzua jarriz gero, beste garraio linea batzuekiko integrazioa ahalbidetuko du eta Oñati hobeto lotuta egongo da eskualdeko herriekin eta baita hiriburuekin ere.

'Debagoiena Geuretik Loratzen' ekimena jarri du abian EH Bilduk



Debagoieneko EH Bilduk *Geuretik Loratzen* dinamika abiatu du bailaran martxan dauden edo datozen urteetan abiarazi nahi diren proiektu eraldatzaileak ezagutarazteko. Horretarako hitzaldiak eta irteerak antolatuko ditu, hiru hilean behin.

Trantsizio sozio-ekologikoa, zaintza eta elikadura burujabetza dira landu asmo diren gaietako batzuk. Eskualdean dauden esperientzia ezberdinak azalduko dira. Dinamika honek bailara gisa indartu, herrien arteko sinergiak sortu eta esperientziak konpartitzeko aukera emango duela uste du koalizio abertzaleak.

Lehenengo saioa otsailaren 24an izan zen Oñatin. Energiaren eta telekomunikazioen arloan Oñatin abian diren bi proiektu —Ur Jauziak eta Onaro— ezagutzeko aukera izan zuten bertaratutakoek.

Diseinu grafikoko bi Anuaría sari lortu ditu 'Letraz' taldeak



Leire Fernandez oñatiarrak eta EHUko Arte Ederren fakultateko beste bi irakasleek osatzen duten diseinu grafiko eta tipografia arloko ikerketa taldea da *Letraz*, eta bi sari eskuratu ditu Espainia mailako diseinu grafiko ANUARÍA-2023 sariketean. Sarietako bat katalogo onenaren atalean lortu dute, *Erakusteko kamisetak / Camisetas que enseñan* proiektuari esker. Iazko otsaileko Kontzejupepetik aldizkarian eman zигun katalogoaren berri Leire Fernandezek. Ikasleekin landutako proiektu bat izan zen, eta Nazio Batuek onartutako Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotutako 108 irudi sortu zituzten.

Erakusketaz gain, helburuen eta sormen prozesuaren berri ematen zuen liburu bat ere —Helburudun diseinua— argitaratu zuten, eta liburu honi esker jaso dute bigarren Anuaría saria, argitalpen editorialen sailean.



Etxe-katua kaskabeltz bat ehizatu berri

ETXE-KATUEK KONTATZEN EZ DIGUTENA

Oñatiko STH Taldea

Ez da eztabaida erraza ondorengo lerrootan doakizuena, edo agian, ulergarri egitean dago zailtasuna. Saiatuko gara. Esan gabe doa ez dela katuen aurkako idatzia, hauen inguruko informazioa zabaltzeko asmoa dugu, soilik. Izan ere, badira 9000 urte inguru gure arbasoak, Egipton, katuak etxe-kotzen hasi zirela; hori diote adituek, behintzat. Hau da, gure gizartean txertaturik daude aspalditik, eta badirudi, azken urteotako joera goranzkoa dela: gero eta katu gehiago ditugu, alegia.

Hori horrela, katuak katu izaten jarraitzen du, ugaltzeko, harrapakinak harrapatzeko edota elikatzeko, esaterako. Hor koska. Sarri ahaztu egiten zaigu –batzuek sekula ez zuten pentsatu ere egingo– etxeko animaliek beraien kabuz dabiltzanean, eragin zuzena dutela ingurugiroan, eta batez ere, beste izaki bizidunengan.

Kale-katuek bioaniztasunean sorrarazten dituzten kalteak aski ikertuak izan dira mundu mailan, eta besteak beste ondorengo lau fenomenoak nabarmentzen dira gehien: harrapakaritzak, lehia, gaixotasunak eta hibridazioa.

-Harrapakaritzak: katuak ehiztari oportunistak dira, eta harrapatzen dituzten animalien artean hegaztiak, ugaztunak, narrastiak, anfibiok, arrainak edota ornogabe ugari daude. 2003an, 5 hilabetez luzatu zen ikerketa batean, 986 etxe-katu britainiarrek 14.370 harrapakin eraman zituzten –hilik– haien jabeen etxeetara. Tartean 20 ugaztun espezie, 44 hegazti, 4 narrasti, 3 anfibi eta hainbat ornogabe. Erresuma Batuan bertan, 1997an eginiko beste lanketa batean, kalkulatu zuten 9 milioi katu, 300 milioi harrapakin eraman zituztela urte batean jabeen etxeetara. Zinez, tamalgarria. Gainera, aipatu beharra dago datu horiek etxeetara eraman diren animaliak hartzen dituztela soilik kontuan: hau da, errealitatean, katuek harrapatu eta hildako animalia kopurua anitz handiagoa da. Estatu Batuetan, esate baterako, urtero, katuek, hogeita mila milioi ugaztun eta lau milioi hegazti akabatzen dituzte –besteren artean, noski–. Tartean, desagertzeko arriskuan dauden espezie asko, noski.

-Lehia: etxe-katuek beste espezie basati batzuen elikagaiak jan eta babesleku/lurralde berberak ustiatzen dituzte. Azken finean, horrek, beste animaliak bizilekuz aldatzera behartzen dituzte, ekosistemak hankaz gora jarritz.

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

-Gaixotasunak: etxe-katuek animalia basatiei –baita txakur zein gizakiei- gaixotasunak transmiti diezaiekete. Gaixotasun ohikoak hurrengoak dira: toxoplasmosia, amorrua, leuzemia felinoak, izurri bubonikoa, tularemia eta tifus murinoa. Kokatzeko; 2008an, Floridan, galtzeko arrisku handian dagoen puma populazio bateko –soilik 200 indibiduo bizi dira askatasunean– 5 kide hil zituen etxe-katu bakarrak transmititutako leuzemia felinoak. Bestalde, Australiako marsupialetan hilketak tasa handiak gertatu izan dira katuek helarazitako toxoplasmosia dela eta –dagoeneko bertako 20 espezie desagertu egin dira–.

-Hibridazioa: kaleko, eta batez ere baserrietako katuak basakatuarekin nahasten dira, azken hauen galera genetikoak bulztatuz. Azken horrek, bertako basakatuaren desagertzea ekar lezake: Eskozian egindako ikerketa batzuek diote, egun, ez dagoela purua den basakaturik, hots, guztiak daudela etxe-katuekin nahasita. Arrisku hori ikusita, datuak deigarriak dira: Europan, milioi erdi basakatu eta 127 milioi etxe-katu ditugu; basakatu bakoitzeko, gutxienez 254 etxe-katu, alegia. Norberak atera ditzala ondorioak. Basakatua milioika eboluzio urteren ondorioa da, naturan guztiz integratua dago eta galtzen bada berreskurazina litzateke. Katuek prozesu eta oreka hori deuseztatu dezakete, eta basakatua desagerrarazi. Tristeia, zinez.

Azken horren harira, edonork pentsa dezake kalean dauden katuek kalte gutxi egin dezaketela naturan, mendiarekiko duten urruntasunagatik. Aitzitik, kale katuetan GPS lepokoekin egin diren ikerketetan ondorioztatu da indibiduo bakar batek 1 eta 20 hektarea artean mugitzeko gaitasuna duela; gogoratu 20 hektarea 40 futbol-zelai direla.

Hori guztia kontuan izanda, eta kaleko, baserrietako zein etxetako katu guztiak aintzat hartuta, pentsa genezake Oñati mai-

lan eremu natural oso gutxi egongo direla katuen presentziarik gabe; agian, bat bera ere ez.

Katuak gustuko ditugu, eta uste dugu gizarteari onura handiak ekartzen dizkiola. Hala ere, aurreko arazo guztiak ezin dira ukatu, betiere gatazka horien erantzuleak gu garela ahaztu gabe. Halaber, erantzule izateak berarekin dakar arazoaren irtenbideak aurkitzeko zama. Horregatik, hona hemen eraginkorrak izan diren hainbat metodo: txintzarrien erabilpena (katuek ehi-zatutako animalia kopurua erdira jaisten da), katuak etxetik ateratzen ez uztea, mendian edo txabola ingurunean katuak ez askatzea (Aizkorri-Aratz natura parkearen barnean dagoen Urbiako fondako katuek kalte izugarriak eragiten dituzte, adibidez), antzutea (populazioa ez da hazten, eta basakatuarekin hibridazioa ekiditen da) edo populazioen kontrola (polemikoena, baina eraginkorrena era berean).

Hitz gutxitan esateko, gure helburu nagusia arazo honen inguruan kontzientzia sortzea izan da, izan ere, Oñatin, katuen populazioak nabarmen egin du gora azken urteotan, herriko kaleetan, etxe partikularretan eta baita landa eremuan ere; ikusi bezala, katuak aske ibiltzeak arrisku ugari ditu gure naturarentzako, eta arazo horri aurre egin behar zaio. Orain, gure esku dago (baita udal agintarienean ere) Oñatiko ingurumen naturala babestu eta osasuntsu mantentzea, norberaren ekintzetatik hasi eta guztiok batera hartu ditzakegun neurrietaraino.

*Norbaitek (norbanako edo talde gisa) informazioa eta datuak eskuratzeko erabili ditugun ikerketen txostenak lortu edo irakurri nahi baditu, jarri kontaktuan STH-ko kideekin gure posta elektronikoa edo sare sozialen bidez.

-Posta elektronikoa: sasaktahola13@gmail.com

-Instagram: [sasaktahola](https://www.instagram.com/sasaktahola)

Katuak aske ibiltzeak arrisku ugari ditu gure naturarentzako

Zure konfidantza mantentzen dugu

* Baldintzak hemen kontsultatu

OÑATI GARAJEA



Zure zain gaude Eurorepar Car Servicen,
zure egunerokotasuneko tailerra.

Tel.: 943 78 13 50

Oñati Garajea

Goribar auzoa 9
20550 - Oñati

garageonati@euskalnet.net

Astelenetik - Ostiralera

08:30 - 12:30

14:30 - 18:30

Mekanikako lanak, elektromekanika, diagnostia, klimatizazioa,...





Aloña Mendi, Udala, Gipuzkoako futbol federazioa eta Real Sociedad fundazioko ordezkariak 75. urteurreneko egitarauaren aurkezpenean

Aloña Mendi kirol elkartearen 75. urteurrena betetzen da aurten

Urte osorako egitarua prestatu dute. Irailaren 20an ekitaldi erraldoia egin asmo da, elkarteke sail guztiekin batera.

2024a urte berezia izango da Aloña Mendi kirol elkartearentzat, eta herriarentzat, oro har, neurri handiagoan edo txikiagoan, herritar gehienak daudelako, modu batera edo bestera, klubari lotuta.

1949an eratu zen Aloña Mendi kirol elkarteak futbolaren eskutik. Gero, poliki poliki, beste kirol batzuk joan ziren klubera batzen, gaur egun 14 sail barnebiltzen dituen familia sendoa osatu arte.

"Aloña Mendik daukan gauzarik onena, herri oso sartuta egotea da; herriak asko maitatu izan du beti", zioen Reyes Urtazak, klubak izan zuen lehen presidentea, 50. urteurrenaren harira egindako elkarrizketan, eta ez zitzaion arrazoirik falta. Izan ere, oso kontutan hartzekoa baita Aloña Mendik urte hauek guztietan herriaren alde egindako lana, eta gaur egun ere egiten duena, ez bakarrik kirol ikuspegitik, baita heziketa, osasuna, herri-erregintza, lankidetzeta eta beste ikuspuntu batzuetatik begiratuta ere. Horregatik, merezi du 75. urteko ibilbidea behar bezala ospatzea, herri osoarekin batera.

URTE OSOKO EGITARUA

Otsailaren 27an aurkeztu zuten 'Oñatiarron Taupadia' lelopean 75. urteurrena ospatzeko prestatu duten ekintza egitarua. Ondoko taulan ikus daitezkeen moduan, martxoan izango dira aurreneko ekitaldiak (zuhaitz landaketa sinbolikoa eta Azkoagain futbol zelaiaren 75. urteurrena) eta hilero egongo da ekintzaren bat, gutxienez.

Ekitaldi nagusia irailean egin asmo da, Aloña Mendiko sail guztien aurkezpenarekin. Ikus-entzunezko ekitaldi koloretsua izango da eta bertan ikusi ahal izango da elkartearen benetako dimentsioa.

Aloña Mendik herriko eragileekin batera ospatu nahi du 75. urteurrena, ekarpen soziala, parekidetasuna, jasangarritasuna eta elkartasuna bezalako balioak sustatuz. Ildo horretan, azpimarratu behar dugu Hotz-Oñati elkartearen alde antolatuko duen merchandising kanpaina, aterako duen etekinaren zati bat GKEarentzat izango baita. Aloña Mendik dei egiten die herritarrei 75. urteurreneko ekitaldietan parte hartzera.

URTE OSORAKO EGITARUA

Egitarua osatzen ari da oraindik, eta litekeena da ekitaldi gehiago ere antolatzea urtean zehar.

MARTXOA

- **Martxoak 10:** Zuhaitz landaketa Aloña Lagunak taldearekin elkarlanean. Sail bakoitzeko zuhaitz bat. Unaimendin, 10:00.
- **Martxoak 17:** Azkoagain futbol zelaiaren 75. urteurrena Aloña-Urki partidaren atariakoan (16:30).

APIRILA

- **Apirilak 2-6:** IV. Futbol Kanpusa Azkoagainen.

MAIATZA

- **Maiatzak 1:** Aloña Mendi eta Realeko beterranoen partidua.
- **Maiatzak 1:** Mendiko laburmetraiak
- **Maiatzak 9:** Zuhaitz Gurrutzagaren *FutbolisTOK* bakarriketa
- **Maiatzak 25:** Areto futboleko Gipuzkoako txapelketako finalak

EKAINA

- **Ekainak 1:** Eskubaloiko Korpo txapelketa
- **Ekainak 7:** Eskola Kiroleko azken jaia.
- **Ekainak 8:** Igeriketako Txantxiku saria
- **Ekainak 14:** Gimnasia erritmikako erakustaldia
- **Ekainak 16:** Infantilen futbol txapelketa: Aloña, Real, Eibar eta Alaves

IRAILA

- **Irailak 20:** Aloña Mendi kirol elkarte osoaren aurkezpena plazan.

URRIA-ABENDUA

- **Urria:** Hitzaldia
- **Azaroa:** Kirol material bilketa solidarioa
- **Abendua:** Triatloto erronka herrikoia



Elkartearen armarrria berdiseinatu dute

Aloña Mendi kirol elkartearen 75. urteurrena ospatzearekin batera, klubaren armarrria berdiseinatu eta eguneratzea erabaki du zuzendaritzak. Goiko irudietan ikus daitekeen moduan, oinarrian edo kontzeptuan ez da askorik aldatu armarrria, baina diseinu modernoagoa duen marka garaikide bat egin nahi izan dute, gaur egungo erabilera ezberdinetarako prestatuta dagoena. Eskumako argazkian Aloña Mendik izan zuen lehen armarrriaren irudia ikus dezakezue. Hasiera hartan baloia soilik ageri zen, klubak futbol saila bakarrik zeukalako, baina sail berriak sortu ahala, baloia kentzea erabaki zen.



Merchandising kanpaina solidarioa

75. urteurrena ospatzeko merchandising kanpaina berezia jarriko du abian Aloña Mendik. Bi pack aterako ditu, bata umeentzat eta bestea nagusientzat. Sorta bakoitzean hiru produktu egongo dira: kalerako kamiseta eta sudadera bana, eta, horiez gain, gosaritarako katilu txiki bat, umeenean, eta aterki edo guardasol dotore bat, nagusienean. Umeen pack-a 40€-tan salduko da, eta nagusia 50€-tan, eta saltzen den sorta bakoitzeko 5€ Hotz-Oñati elkartearentzat izango dira.

Bere historian zehar Aloña Mendik Oñatiko herriari egin dion ekarpena handia izan da, alde askotatik begiratuta (osasuna, heziketa...), eta 75. urteurreneko ospakizunen ardatzetako bat elkartasuna izatea nahi du klubak, eta ahalegin berezia egin nahi izan du Hotz-Oñati elkartearen aldeko kanpaina honekin. Merchandising pack-ak Aloña Mendiren webgunean egokitu den formularioa betez eskuratu ahal izango dira: www.aloñamendi.eus/75-urteurrena.

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

Aloña Mendi kirol elkartearen sorrera

Oñatiko kirolaren historia lehenago hasten bada ere, Aloña Mendi kirol elkarteak 1949ko otsailan eratu zen ofizialki, futbolaren eskutik. Beste kirol batzuk ere (txirrindularitza, pilota, mendia, atletismoa, boxeoa...) egiten ziren garai hartan Oñatin, Club Deportivo Oñate eta, batez ere, Txan-txiku Txoko elkartearen babesean, baina, Aloña Mendi elkarteak herriko hainbat gazte futbolzaleren eskutik sortu zen, 1949ko otsaila-martxoa bitartean.

Ordurako amaitzearen zeuden Azkoagain futbol zelaia eraikitzeko lanak, eta urte hartako otsailaren 12an Aloña zine aretoan egindako batzarrean onartu ziren klubaren estatutuak eta elkarteari Aloña Mendi izena jartzea. Martxoaren 7an jaso zuten gobernadorearen onarpena eta handik gutxira eratu zuten elkartearen lehenengo zuzendaritza taldea: Reyes Urtaza (lehendakaria), Juan Gordo (lehendakariordea), Jose Maria Leturia (idazkaria), Jose Otalora (diruzaina) eta bokalak: Jaime Agirre, Angel Anduaga, Eugenio Aranguren, Miguel Azpiazu, Jesus Galdos eta Juan Ibarrondo.

Martxoaren 20an Azkoagain futbol zelaia inauguratu zen, Arrasate eta Bergarako taldeen arteko partidarekin. Aloña Mendik jokatu zuen aurreneko partidu ofiziala irailaren 4an izan zen, Bergarako Izarraren aurka.

ELKARTEAREN EGOITZA

Aurreneko urteetan futbol elkarte gisa jardun zuen Aloña Mendik, baina, poliki poliki, gainerako kirolak ere klub berean batzeko beharra ikusi zen herrian. Garai hartan Aloña Mendik ez zeukan egoitza finkorik, eta Guria edo Torre tabernetan egiten ziren batzarrak, eta artxiboa unean uneko direktiboaren etxean egoten zen.

Horregatik, 1966an lantalde bat eratu zen klubarentzako lokal bat bilatzeko helburuarekin, eta aukera ezberdinak aztertu ostean, Atzeko Kaleko 20 zenbakiko behe solairuko lokala erostea erabaki zuten. Gero, kirol elkartearen 50. urteurrenaren harira, etxe osoa erosi eta gaur ezagutzen dugun elkarteak egokitu zen.



1949ko Aloña Mendi futbol taldea. Zutik: M. Etxegoien, P. Guridi (entrenatzailea), A. Leturia, J.L. Gordo, J. Igartua, A. Ugarte eta J. Gordo. Markurtuta: P. Maiztegi, P. Iraola, J.M. Urtaza, J. Altuna, L. Igartua eta F. Gereta.



51 txirrindulari pedalei eragiteko prest

Aurten 50 urte dira txirrindulari bat aurrenekoz Aloña Mendiren maillotarekin lehiatzen hasi zela

Aloña Mendiko txirrindularitza sailak aurten errepedean ipiniko dituen taldeen aurkezpena egin du. Guztira 51 txirrindulari, 46 mutil eta 5 neska. Gogoratu, gainera, afizionatu mailan beste hiru oñatiar ariko direla aurten: Aimar Erosarbe eta Aimar Madina, Caja Rural taldean, eta Danel Casais, Laboral Kutxan

URTE BEREZIA

Aurtengoa urte berezia da Aloña Mendirentzat, 50 urte betetzen baitira txirrindulari bat klubaren maillotarekin lehiatzen hasi zenetik.

Aloña Mendi txirrindularitza saila urte batzuk lehena-go sortu zen, 1966an, Luis Mari Etxeberria buru zela, baina lehen urte haietan karrerak antolatzen mugatu ziren, eta 1974 arte itxoin behar izan genuen txirrindulari bat



Txirrindularitza saileko direktiba, Etxeberria eta Altube omenduekin

Aloña Mendiren izenean lehiatzen ikusteko. Mariano Altube izan zen Aloña Mendiko kamiseta jantzi zuen aurreneko txirrindularia, Eibarren, martxoaren 31n jokatu zen junior mailako lasterketan.

Berehala nabarmendu zen Altube, bai errepedean eta, batez ere, ziklo-krosean, eta, hala, hurrengo urtean (1975) Espainiako txapelketa irabazi zuen Ordizian. Txapela, baina, klubean geratu zen, Etxeberria presidenteak esan zuelako txapel hura Aloña Mendirena zela. Horregatik, Mariano Altube lehiatzen hasi zela 50 urte betetzen diren honetan, txirrindularitza sailak txapel haren errepli-


ka edo ordezkoa eman dio Altuberi, eta plaka bat Etxeberriari, herriko txirrindularitzaren alde egindako lan guztiagatik.

Iban Altube zena ere go-goan izan zuten ekitaldian, hura ere Espainiako txapel-duna izan baitzen 1996an, mendi bizikletako espezialitatean.

LEHEN LASTERKETA

Txirrindulariak prestatzeaz gain, urtean zehar hainbat karrera antolatzen ditu Aloña Mendik, eta aurtengo lehena martxoaren 9an izango da, Benjamin, Alebin eta Infantil mailako neska-mutikoentzat, Unibertsitate inguruan, 16:30.

'Matx' kirol aplikazioa aurkeztu dute



Urteetako lan gogorraren ostean, abian da, jada, *Matx* kirol proiektua, Tokikom sareak pentsatu eta landu duen egitasmoa, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Laboral Kutxaren laguntzarekin.


Kirol-aplikazio bat da *Matx*, kirola dinamizatu, gertuko balioan jarri, eduki feskoak eskaini eta kirolzale, kirolari eta klubaren arteko harremanak errazteko helburuarekin garatu dena.

Hiru zutabe nagusitan egituratu dute proiektua: klubak, kirol edukiak eta komunitatea. Klubei dagokienez, digitalizazioan eta komunikazioan lagunduko die *Matx*ek. Partiden data, emaitza eta sailkapenen berri emango da bertan, eta baita ikus-entzunezko edukiak ere. Gertuko kirolean gertatzen den guztiaren berri, azken batean, ikuspegi fresko eta berritzailea erabilita. Kirol komunitatea sortzea da helburua.

Matx kirol aplikazio berria dohainik eskura daiteke iOS zein Androiderako.



Mendi irteera Martxoan Lokiz mendilerroa



Aloña Mendiko mendi sailak martxorako antolatu duen irteera Lokiz mendilerroan zehar izango da. Nafarroako mendebaldean dago Lokiz, Lizarrerrian, Ameskoak, Lana eta Allin haranen artean.

Martxoaren 17an izango da irteera eta ibilaldi zirkularra izango da, Ganuza inguruan, Lokiz mendikateko amildegiak bisitatuz. Inguru ikusgarria. Sartzaleta (1.104m) izango da tontorrik garaiena. Guztira, 12 kilometroko ibilbidea, 800 metroko desnibelarekin, 5-6 ordu inguruan egiteko modukoa. Ez du batere zailtasunik.

Irteera goizeko 7etan izango da, postetxe parean. Izena emateko azken eguna martxoaren 14a, osteguna, Aloña Mendi tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidean. Bazkideek, 10€. Federatuta egon behar da.

Oñatiko eskalatzailen urteroko 'festa'

Urtero bezala, inauteri jaietako larunbatarekin batera jokatu zen Oñatiko Eskalada Txapelketa, Zubikoa kiroldegiko rokodromoan. Denera, 41 neska-mutilek parte hartu zuten, bi mailatan banatuta, igo-bideen zailtasunaren arabera. Kanporaketa saioak eta finalak jokatu ostean, lehen mailakoen artean Martxel Gereka nagusitu zen, bigarren Igor Mugarza eta hirugarren postuan, berdinduta, Iñigo Agirre eta Ekhi Galdos sailkatu ziren. Bigarren mailakoen artean, berriz, Angel Lerak, Iliia Uriartek eta Eider Murgiondok osatu zuten 'podiuma'. Neska eta mutil batera lehiatu ziren. Maila bakoitzeko lehen hiru sailkatuek urre, zilar eta brontze kolorez margotutako katu-oin zaharrak jaso zituzten sari sinboliko gisa, ohiturari eutsiz. Izan ere, lehiaren gaineratik herriko eskalatzailak batu eta elkarrekin saio polit bat igarotzea izaten baita txapelketa honen helburu nagusia. Festa borobiltzeko, bazkaria egin zuten elkarrekin.

 **ZURICH**
M^a del Mar Urrutia Negueruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

 **Gezalaga**
Margoak
Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com



Musika bandak iaz eskaini zuen kontzertu pedagogikoko irudia

ZIRKO GUNEA

» Musika bandaren martxoko kontzertua **pedagogikoa** izango da, familia giroan gozatzekoa

» Musika eskolako ikasleek, **Potx eta Lotx** pailazoen eta **gimnasia erritmikako** dantzariak parte hartuko dute, besteak beste

Kontzertua larunbatean (martxoak 16) izango da

'ZIRKO GUNEA' du izenburua Oñatiko musika bandak martxoan eskainiko duen emanaldiak, denboraldiko laugarrenak. Kontzertu pedagogikoa izango da, familia giroan gozatzekoa. Musika bandarekin batera, hainbat gonbidatu eta protagonista ikusiko ditugu eskenatokian, hala nola: gimnasia erritmikako dantzariak, Potx magoa, musika eskolako lengoia musikalako 'MIFASOL' karakolak, Potx eta Lotx pailazoak... Aurkezle lanetan izaskun ariko da eta sorpresa gehiago ere izango omen dira.

Zubikoa pilotalekua zirko bihurtuko dute denen artean, eta musikaz,

dantzaz, ahotsez eta zirkoaren magiaz gozatzeko aukera eskainiko duen emanaldi berezia izango da. Musika Bandarekin batera Banda Gaztea taldeko musikari gazteek ere parte hartuko dute.

KONTZERTUA LARUNBATEAN

Normalean igande eguerditan izaten dira musika bandaren kontzertuak, baina oraingo honetan larunbatean izango da, 13:00etan, Zubikoa pilotalekuan. Ohi bezala, emanaldia dohainik izango da, baina aurrez sarrera eskuratu beharko da Txokolateixan.

EGITARUA



Au Cirque

M. Chapuis

Grand Galop (Circus marx)

J. Vinson-en moldaketa

Sogno di volare

C. Tin (M. Cornaway-ren moldaketa)

The Nutcracker Swing

P. Tchaikovsky (J. Rhinow-ren mold.)

Fantasia

J. Vinson-en moldaketa

El caracol MI FA SOL

A. Ferran

Copacabana

N. Iwai-ren moldaketa

Grand galop (Circus marx)

J. Vinson-en moldaketa

Zubikoa pilotalekuan izango da emanaldia (13:00). Sarrerak (doan) Txokolateixan eskuratu behar dira.

 **Mekalki**
S. Coop. **mekanizatuak**
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

San Martin egoitzako emakume langileei eskainitako kontzertua

Hots Abesbatzak San Martin egoitzan emango du aurtengo 'Emakumeek Idatzia' kontzertua, **martxoaren 10ean. Emakume zaintzailearen** lanari aitortza egin nahi diote.



Martxoaren 8an ospatzen den Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, emakume musikagileen lanari ikusgarritasuna emateko kontzertua antolatu ohi du Ganbara Faktoriak, eta aurten ere Junkal Guerrero, Eva Ugalde, Idoia Azurmendi edota Jenni Jensen bezalako konposatzaileen musikarekin osatutako kontzertua eskainiko du Hots Abesbatzak martxoaren 10ean.

Aurten, baina, emakume musikagileei ez ezik, zaintza lanetan jarduten duten emakumeei ere egin nahi die aitortza Ganbara Faktoriak, eta, hala, aurtengo 'Emakumeek Idatzia' kontzertua San Martin egoitzako emakume langileei eskainita egongo da, egiten duten lana eskertzeko. San Martin egoitzan bertan (18:00etan) izango da emanaldia. Aforo mugak direla eta, San Martin egoitzako egoiliarrentzat eta senideentzat izango da kontzertua.

San Martin egoitzako egoiliarrek eta hauen senideak solik sartu ahal izango dira kontzertura

UDABERRIAN KANTU ESKOLA KANTARI

Martxoaren 23an,
Agustinoen elizan,
20:00etan



Urtero bezala, udaberriarekin batera KANTARI kontzertua eskainiko dute Ganbara Faktoriako kantu eskolako taldeek: Ganbara Txiki eta Txikitxo, Hasiberriak eta Ikastetxeak Kantari programako abesbatzak. Guztira 100 bat haur izango dira, eta hiruhilabete honetan landutako obrak eskainiko dituzte.

Agustindarren elizan izango da emanaldia, martxoaren 23an, iluntzeko 20:00etan. Programa bariatua eskainiko dute, eta euskal musikak protagonismo handia izango du. Aitor Biain eta Aitor Garitano izango dira zuzendariak, eta Rakel Murgiondo ariko da piano jole. Sarrerak (5€).



Ganbara Txiki Pasaian kantari

Martxoaren 22an Pasaiaiko parrokian (20:00) abestuko du Ganbara Txiki, Easo haur abesbatzarekin batera, bien arteko elkartrukeari hasiera emanez. Donostiako taldea maiatzean etorriko da Oñatira. Gorka Miranda eta Aitor Biain izango dira zuzendariak eta Rakel Murgiondo piano jolea. Sarrera doan.

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

NI
moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40



ANTZERKIA Martxoak 3, Santa Ana antzokia, 19:00

Esnearen kolorekoa

Tanttakaren antzezlan berria ikusgai Oñatin. Generoaren eta klase gatazkaren ikuspuntutik aztertzeo asko ematen duen istorioa da.

Tanttaka Teatro taldearen antzezlan berriaz gozatzeko aukera izango dugu martxoaren 3an, igandea, Santa Ana antzokian, 19:00etan (10€).

Goiko irudiak erakusten duen moduan, goi mailako aktore taldea dago Fernando Bernuesek zuzentzen duen


antzezlan honen atzean, eta kontatzen duen istorioa bera ere interesgarria da oso.

Nell Leyshon britainiarra-
ren *Color de Ilet* eleberriaren egokitzapena da, eta 1830eko nekazal giroko Ingalaterrako baserritar familia analfabeto batean bizi den alaba (Mary)

da protagonista nagusia. Ilea esnearen kolorekoa du eta hanka batean arazo fisikoa zuela jaio zen. Baina familiarren kondetatik ihes egitea lortzen du, bikarioaren etxera neskame gisa lan egitera bidaltzen dutenean. Aitaren jipoiak jaso ohi zituen eta ai-

tona gozo zaintzen zuen neskatilak bere borondatearen kontra utzi beharko du familia, baina orduan izango du bere desiorik handiena, irakurtzen eta idazten ikastea, egi bihurtzeko aukera.

Liburuetan "marra beltz pila bat besterik ez" ikusteari utziko dio. Itzalaren mundua uzten duen heinean, argiak are itsugarriagoak izan daitezkeela ohartuko da eta, horregatik, Maryri bere istorioa kontatzeko ahalmena baino ez zaio geratuko. Generoaren eta klase gatazkaren ikuspuntutik aztertzeo asko ematen duen biografia da berea.



COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPECIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

☎️ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP

✉️ OINATI@COINBROKEREUS



(*) Itten: arrastua, pistia

>> URRUSULAKO KONTUAK (VI)

Jokuak eta apostiak

Lehenagoko esaeriak “*jokua ez tala errenta, hoba dala oillua erreta*” esaten badau be, era guztietako joku eta apostiak be izaten zittuan Urrusulan: boluetan, kartetan, antxintxiketan ...

Behin Martzelino eta Franzisko San Pedroko kurtzetik Urrusulara, bizikletiarren eta zaldixaren arteko apostia egin zuan, eta bizikletiak irabazi xuan; zaldixak Lamiategi aldian estropozuren bat izan ebela-eta, azkenian, behintzat, bizikletiak irabazi. Zaku-karrera be apostian egitten euen. Osiñagatik Aitzgaiñera antxintxika be egitten zan apostia.

Karta-jokuan be asko egitten zuan, Urrusula horretan betik izan dok famosua, nahiz eta urrusuldar danak be ez izan jokularixak. Baiña kartak, horregatio, betik aldian, egun santu guztia kartetan, hori bai, gizonak alde batian eta emakumiak bestian. Briskan, batez be, mezia entzun, soziedadera fan eta berihela jokuan hasi. Soziedadian edo tabernan eraten eueiña hil akaberan ordainketan euein. Beste taberna batzuk be baegozen, bat Osiñagan eta beste bat Garaikuan. Beste leku batzuetan bezalaxe, batzuk batera, eta beste batzuk bestera, baiña, hori bai, guztietan jokua zan inportantiena. Auzuari bizitza emuten otsalako, Garayalde, Arantzazuko fraidiak, auzua jokuan ikustiari meziari beste inddar emuten otsan.

Bola-jokua, berriz, domeka danetan egitten zuan eguraldi onakin, eta horretarako bolaleku onduan xaguan zulo bat eta orainddiok be han xagok ha. Han ifiñtten zuan garrafoi bat, lau, zortzi edo hamasei litrokua, basuakin, juntaitten gintzuan jentia kontuan hartuta, Osiñanagatik ekarritta.

Bolotan ekiñaldixa egin ondoren egitten giñuan *kabrak* jokua, —guk hala esaten gitxan— ardua zeifiek edo zeintzuk pagau bihar euen erabagitteko. Parte hartzen euen bolari danen artian egitten zittuan bi ekipo, bi bolari faten zittuan bakoitza bere ekipua egitten, aldiko bana aukeratuaz txandan: hamasei bazittuan danera, zortzi eta zortzi; hamabi baziran, sei eta sei. Eta ekipo edo talde honeik jokaketan xuain alkarren kontra, eta irabazten eueiñak libre geldiketan zittuan eta bestiak zatittu bi taldetan eta beste joku bat egitten xuain eta berriro irabazten eueiñak libre. Azkenian, joku batzuk egin ondoren, pagaitten xuain lauk, hiruk, bik edo batzuetan jokua azkeneraiño eruan eta batek bakarrik be bai. Egoten zuan aukeria jokitik urteteko edo ez parte hartzeko, baiña kasu horretan urteten ebenak bere partia pagau egitten xuan, eta galtzailliak gaiñetikua pagaitten xuan edo xuain. *Kabrak* esaten gitxan Urrusulan joku honi.



'Mus partida' Ramón de Zubiaurreren margolana



Goixan, Urrusulako bolalekua. Ezkerrian, bolaleku ondoko horman daguen zulu; bertan ifintten euen garrafoia

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



ANTZERKIA

MARTXOAK 3 / 19:00

'Esnearen kolorekoa'

Ttanttaka Teatro taldearen eskutik (10€).

Santa Ana

MARTXOAK 10 / 19:00

'eMcumeak'

Zelako Kultur Ideia taldearen eskutik (8€).

Santa Ana

BERTSOAK

MARTXOAK 6 / 18:00

Bapateko bertso musikatuak

Ane Zuazubiskar, Amaia Iturriotz, Uxue Fernandez eta Oihana Arana. Musikariak: Libe Goenaga eta Aner Peritz. Gai-jar-tzailea: Maider Arregi. **Zine aretoan**

EKITALDI BEREZIAK

MARTXOAK 2 / 9:00-14:00

ZUHAITZ FERIXIA

Mintegi ezberdinetako lore eta landareak erosteko aukera **Foruen plazan**

MARTXOAK 3 / 10:00

ZUHAITZ EGUNA

Zuhaitz landaketa egingo da herriko gu-
ne batean **Foruen plazan**

MARTXOAK 10 / 10:00

ZUHAITZ EGUNA ALOÑAN

Aloñako Lagunak eta Natur Eskolak an-
tolatuta. **Unaimendin**

ERAKUSKETAK

MARTXOAK 3ra arte / 18:00-20:00

'Xomorroak. Animalia txikiak, ikuskizun
handia'

Natur eskolak antolatuta. **Kultur etxean**

MARTXOAK 8-22 / 18:00-20:00

'Oñatiko Emakume Sortzaileak'

Herriko 12 emakume sortzailearen lanak
ikusgai. **Kultur etxean**

HITZALDIK

MARTXOAK 12 / 18:00

'Eguneko arreta zerbitzua'

Oñatiko Txistulari Alardea

Oñati Abesbatzak eta metal boskote batek ere parte hartuko dute

MARTXOAK 23, LARUNBATA, SANTA ANA, 19:00

Oñatiko Aita Madina txistulari taldeak kon-
zertua eskainiko du martxoaren 23an. Bailarako beste txistulari batzuek osatu-
ko dute taldea eta, gainera, Oñati Abes-
batzak eta musika bandako metal bos-
kote batek ere parte hartuko dute. Hona-
ko pieza hauek joko dituzte: *Segurako al-
borada* (herrikoia), *Arabako Otoitza* (De-
metrio Iriarte), *Fistuka* (Ansorena), *Saioa-
rena* (Ansorena), *Jo txistua* (Peio eta
Pantxoa), *Maritxu* (herrikoia), *Txistu go-
zoa*, *dantza gogoa* (ansorena), *Bi austriar
doinu* (Iribar), *Gogoaren baitan* (Anje Duhal-
de), *Isil isilik* (herrikoia), *Gabiltzan kalez
kale* (Sorozabal) eta *Hallelujah* (Cohen).



Hizlaria: Udal Gizarte Zerbitzuak. **Pake
Lekun**

MARTXOAK 13 / 19:00

'ADAXKA LEHORRAK. Taldea ekosozialaren
biharamun politikoak'

Jokin Bergararen liburuaren aurkezpen eta
solasaldia. STH-k antolatuta. **Gaztetxean**

MARTXOAK 20 / 10:00

'AADIMEN ARTIFIZIALA: filosofiaz eta
informatikaz begirada bi'

Hizlariak: Aitzol Astigarraga (informatika-
ria) eta Jon Mentxakatorre (filosofoa). Es-
perientzien Gelak antolatuta. **Santa Ana**

MARTXOAK 23 / 10:30

'Cómo escapar de la opresión financiera
del sistema'

Hizlaria: Aleix Carriga Gascons. Artez
Hezten taldeak antolatuta. **Kultur etxean.**

LITERATURA

MARTXOAK 7 / 18:00

Ipuin kontaketa - **Musika**

'Larru Marruak. Primi eta Maurizia' libu-
ruaren aurkezpena. **Zine aretoan.**

MARTXOAK 13 / 18:00

'Gente, caminos y sucesos'

Carolina Rueda kolonbiarraren ipuin kon-
taketa saioa helduentzat. **Zine aretoan.**

MUSIKA

MARTXOAK 1 / 18:30

Herrixa kantuan

Jose de Azpiazu musika eskolak antola-
tutako kantu-jira **Kontzejupeian**

MARTXOAK 2 / 19:00

letagin + the Clayton

Burrunda Faktoriak antolatuta. Sarrera:
8€/3€ **Antixena Gaztetxean**

MARTXOAK 10 / 19:00

Ibil Bedi

Burrunda Faktoriak antolatuta. Sarrera:
5€/3€ **Antixena Gaztetxean**

MARTXOAK 16 / 13:00

Musika Banda

'Zirko Gunea'. **Zubikoa pilotalekuan**

MARTXOAK 17 / 12:30

Bele

Matinee kontzertua (8€) **Gaztelekuan**

MARTXOAK 23 / 22:00

Malko

Oñatiko rock taldea (3€) **Gaztelekuan**

OSTEGUN KONTALARIAK

MARTXOAK 14, HAUR LIBURUTEGIAN, 18:00



Udal liburutegiak antolatzen duen 'Ostegun Kontalariak' ekimenaren baitan, eta Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzu, Ane Gebara ipuin kontalari gasteiztarrak 'Ze polita zaren!' saioa eskainiko du Haur liburutegian. Halaxe aurkezten du berak saioa: "Zelako hanka sendoak dituzun! Seguru mendi altuenak igotzeko kapaza zarela. Eta begi handi horiekin edozein iskinetan gertatzen ari dena ikusteko gai izango zara. Beso luze horiekin zuhaitzetara igotzeko arazorik ez duzu izango! Eta belarri handi horiek ezin hobekak dira kontatuko ditudan ipuinak entzuteko. Hemen batu garenak talde ederria egin dugu, ipuinak entzun eta harro aterako gara kalera garen bezalakoak garelako!". Bost urte-tik gorako haurrentzako saioa da. Gonbidapenak martxoaren 1etik aurrera.



Hileko gomendioa

Azazkalak moztu, fruta zuritu, opari bat bildu, tortilla bat egin, botoi bat josi, zapatak lotu edota autobusa hartu... Eguneroko bizitzarako ezinbestekoak diren trebetasunak erakusten ditu liburu honek. Haurren autonomia lantzeko liburu bikaina.

ZINEA



ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 eta 22:00), igandea (19:30) eta astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Martxoak 1 - 4

ZINE KLUBA:

El chico y la garza

NAGUSIAK:

Politicamente incorrectos
HAURRAK: Boonie Bears



Martxoak 7 - 11

ZINE KLUBA:

Pobres criaturas

NAGUSIAK:

Sala de profesores
HAURRAK: Museoaren zaindaria



Martxoak 14 - 18

ZINE KLUBA:

La estrella azul

NAGUSIAK:

Priscila
HAURRAK: La aventura infinita



Martxoak 21 - 24

ZINE KLUBA:

Las hermanas Munkata

NAGUSIAK:

Tratamos demasiado bien a las mujeres
HAURRAK: Luca



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

MARTXOAK 6, 7, 15, 16, 17, 25 eta 26. API-RILAK 3 eta 4.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

MARTXOAK 8, 9, 10, 18, 19, 27, 28, 29, 30 eta 31. APIRILAK 1, 5, 6 eta 7.

GARATE

Kale Barria 42 / 943 78 05 58

MARTXOAK 1, 2, 3, 11, 12, 20 eta 21. API-RILAK 8 eta 9.

ULDAIN

Kale Barria 6 / 943 78 11 28

MARTXOAK 4, 5, 13, 14, 22, 23 eta 24. API-RILAK 2.

MERKATU TXIKIA

GARAJEA alokairuan ematen da San Lorentzo auzoan. Deitu: 617238637

ETXEBIZITZA alokoairuan hartu nahi du 2 seme-alabadun familiak. Garbiak eta txukunak dira. Errekomendazioak dituzte. Deitu: 624804598 / 664347798

ORTU SAILA SALGA Jaumendi azpiko lursailetan kokatuta dagoen ortu saila (200 m²) salgai. Prezioa jaitsi dugu. Interesa duenak: 943782559 / 943780526.

ODOL ATERALDIA

MARTXOAK 15 / 16:30-20:30 MU-ko

Enpresagintza fakultatean. Hitzordua hartzeko, deitu: **943007884**



Maite Aia Kortabarria
Irakaslea

Arantzasuko Ama, 3 behea
943 53 36 57

20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com

Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

www.4sgoiena.com



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Bereaz Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK



LANA

Innovation from nature



BEAM H 20 U



**THREE-LAYERED
SHUTTERING PANEL
IRU-PU & STD**



PELLET



LANA S. Coop.
Czech LANA s.r.o
www.lana.eu